


Berrigara

Erakusketa: Ignacio Zuloaga, 4 • Tel.: 943 79 07 20 • ARRASATE
Erakusketa: Meatzereka, 6 • Tel./faxa: 943 74 20 20 • ARRASATE

Udal artxibategia

Herriarregana
burbildu nahian



SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK


Ibargarai 11-13 BERGARA
Telefonoa eta faxa: 943 76 70 58



Mariaren Lagundia Ikastola



**Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
Aurrematrikulazio epea otsailaren 7tik 18ra**



**Irailetik aurrera,
haurtzaindegia
ere bai!**

- **Ordutegia: 7:30-18:30**
- **Gurasoek umeak bisitatzeko aukera**
- **7 urte arte**
- **Astelehenetik eguakitzera**

Errealitatea eta fantasia

Antonio Zabala / Kazetaria



Larunbatean Goya sarien festan "Todo sobre mi madre" eta "Solas" izan ziren filme sarituenak. Pelikula bihen ezaugarriari begirada bat emanaz gero, konturako gara, hasieran behintzat, oso desberdinak direla. Benito Zambranoren lana oso diru gutxi-kin egina da, aktore ezezagunak erabiltzen ditu eta filmea jende umilaren eguneroko bizitza gogorra erakutsi nahi duenez, estetika errealista zatarra erabiliaz, pertsonaia horien ingurune-giroan murgiltzen gaitu. Almodovarren lana alderantziz, diruarekin eginda dago, agertzen diren aktore gehienak ospe handikoak dira, eta bizitzak kolpetutako pertsonaia agertzen badira ere, honetan, istorio desberdinak kontatzeko erabilitako estetika guztiz desberdina dugu: argazkiak, koloreak, jantziak, musika eta abar, filmeari oso itxura ederra ematen diote.

Bien ezaugarriak ikusi ondoren pentsa genezake dirua dela bien diferentzia nabarmenena, baina ez dut pentsatzen horrela denik. Almodovarren hasierako filmeak diru gabe egina ziren, eta estetika aldetik gaurko lanen disdira ez izan arren, munduari

ematen zion begiradak Zambranoren begiradarekin zerikusi txikia zuen: pertsonaien eta munduaren ikuspuntu askoz groteskoagoa eta eroagoa du.

Dena den, badituzte ezaugarri komunak ere: filme biak melodramak dira ("Solas" melodrama errealista da eta "Todo sobre mi madre" disdiratsua), sentimenduz arduratzen dira, eta ikusleak hunkitzea lortzen dute. Eta batez ere, talentuz egindako lanak direla.

Beraz, barietatea da zinema handia egiten duena. Zinemak errealtatearekin eta fantasiarekin jokatzen du: eguneroko bizitza azaldu eta ikusleak ezagutzen dituen sentimenduak edo egoerak erakutsi ditzake, edo alderantziz, agian, ikusleari inoiz beteko ez dituen abenturak, amodioak eta ametsak ger-

turatuko dizkio. "El pequeño ladrón" eta "Sleepy Hollow" filmeak ia-ia aurkakoak eta ederrak ditugu, esandakoa-ren lekuko argiak eta gomendagarriak.

Lehena, Erick Zonka zuzendari frantsesaren lana dugu. Bertan okindegi baten lan egiten duen gazte baten bizitza kontatzen digu. Gazteak bizitzaz aldatu nahi du eta horretarako delitugile talde batean sartuko da. Filmeak, kamara mugikorra erabiliaz, denbora gutzian gazteari jarraitzen dio, bere keinu guztiak aztertuz eta sartzen den giro miserable, zakarra eta gupidagabeen eraginak erakusten ditu. Oso filme zuzena, errealista, laburra eta ikaragarria da.


Bigarrena, Tim Burtonen azkenengo filmea da eta, Washington Irving ipuin fantastiko baten oinarrituta, irudi benetan liluragarriak lortzen ditu. Dekoratuak, argazkia, jantziak, efektu espezialak eta Danny Elfmanen musika zoragarria maisutasun osoz erabiltzen ditu, ipuinek duten giro magikoa lortzeko. Sorginak, burgabeko zaldizko hiltzaileak, hildakoen zuhaitza, odola, umorea eta beldurra dira koktel fantastiko honen osagai nagusienak. <

"Barietatea da zinema

handia egiten duena.

Zinemak errealtatearekin eta fantasiarekin jokatzen du"

barruan



J. Mari de Borja
Errellenoren kofradiakoa

"Gure helburua errelleno eta tostoiak promozionatu eta ezagutzera ematea da"

8.



German Hernandez
Auto gidaria

"Pilotatzeko eskola ona da kartinga. Euskadiko txapelketan parte hartuko dut"

27.



Trini Olabarria
Mujika jantzidendako langilea

"Bergarako gizonezkuak ondo jazen die, andrak jazen dittue eta"

33.

Farmaziak

Eguakitza 4:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Zapatua 5:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Domeka 6:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Astelehena 7:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Martitzena 8:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Eguaztena 9:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Eguena 10:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Ogia

Domeka 6: Konde.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitza 28

4-24-26-28-29-48 (osag.42/itz.3)

Astelehena 31

1-3-17-22-34-40 (osag.31/itz.7)

Martitzena 1

2-5-13-27-35-45 (osag.1/itz.1)

Eguaztena 2

26-28-38-39-41-44 (osag.10/itz.7)

PRIMITIVA

Zapatua 29

10-11-15-19-38-41 (osag.25/itz.0)

Domeka 30 Saritzarra

6-8-26-35-38-41 (osag.32/itz.0)

ONCE

Eguakitza 28: 17.318 (094 seriea)

Domeka 30: 26.072 (041 seriea)

Astelehena 31: 97.279

Martitzena 1: 54.045


Eguaztena 2: 32.975

hau be badou?!

Kuboa eta kantua

Hego Korean, Eumichi eskolako musika Lee Byung-won-ek, metodo berezia erabiltzen du bere ikasleen ahotsa hezitzeko: bu-rua kubo baten barruan dutela kantaerazten die. Praktikarekin, bestela ondo kantatuko ez litzuketen kantuak ere txukun asko kantatzen ei dituzte ikasleek.

Eguraldia



Zapatua 5

Astebukaerarako eguraldiak hobera egingo du eta urdingu-neak nagusituko dira zeruan. Goiz partean lainoa izango da, baina, osterantzean, oskarbi.

Ilargiaren aldiak



Ilberri: otsailak 5



Ilgora: otsailak 12




Ilbete: otsailak 19



Ilbehera: otsailak 27

Igeldoko metereologi behatokia




Domeka 6


Zapatuan baino hodei gehiago ikusiko ditugu zeruan, baina, orohar, ostarte zabalak irekiko dira. Goiz partean fresko egingo du.

Eguzkia

Domeka, otsailak 6



Sortu: 08:22



Gorde: 18:40

Temperaturak eta euria Bergaran

Elosu: Joxean Azkarate
San Juan: Luis Mari Agirre

	Elosu			San Juan		
	max. °C	min. °C	euria l/m ²	max. °C	min. °C	euria l/m ²
Eguena 27	3	1	-	12	-1	-
Eguakitza 28	9	1	-	16	-2	-
Zapatua 29	7	3	-	12	-2	-
Domeka 30	11,5	6	-	16	8	-
Astelehena 31	10	6,5	-	20	2	0,4
Martitzena 1	12	8	-	19	3	-
Eguaztena 2	5,5	4	22,5	12	8	20,4

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Lo-korrosia

Lo-karrasa, karrasa, korrosa eta lo-korroskara ere bai.
Lo-zurrunka.

- Aren lo-korrosiak etxia be dardaraz jartzen juan.



JOSU OKINA

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Bergarako udaltzaingoa	943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa	943 76 62 46
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitalea	943 03 53 00
Mendaroko ospitalea	943 03 28 00
Zumarragako ospitalea	943 03 50 00
Arantzazuko osp. (Donostia)	943 00 70 00
Santiago ospit. (Gasteiz)	945 00 76 00
Txagorritxu osp. (Gasteiz)	945 00 70 00
Basurtoko ospitalea	94 400 60 00
Galdakaoko ospitalea	94 400 70 00
Gurutzetako ospitalea	94 600 60 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23
Odol emaleak	943 76 16 24
Itxaropenaren telefonoa	943 45 80 05

GARRAIOAK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Bergarako udaletxea	943 77 91 00
Antzuolako udaletxea	943 76 62 46
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Kiroldegia	943 76 56 41
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

ABERIAK / ISTRIPUAK

Argindarra. Iberdrola	901 20 20 20
Grua. Ibai	608 67 68 21

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Idolaz	943 76 65 08
Jubilatuen Etxea. Bergara	943 76 21 40
Antzuolako jubilatuen elk.	943 76 62 71
Postetxea	943 76 26 85
Bedelkar	943 76 04 68
Akulu AEK	943 76 05 18
Udal euskaltegia	943 76 44 53
Bergarako notaritza	943 76 10 73

zorion agurrak



Doroteo Samanes
Otsailaren 6an
75 urte.
Urte askotarako!
Lagunak.



Ekaitz Irazola
Otsailaren 4an
6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Mikel Mengual
Otsailaren 9an
5 urte. Urte askota-
rako! Ander eta
familiakoak.



Xabier Garamendi
6an 31. Urte askota-
rako tio! Maialen,
Beñat, Eukene,
Amaia eta Markel.



Aroa Gomez
Otsailaren 5ean
21 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Mertxe Laskurain
Otsailaren 10ean
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Nerea Zenekorta
8an 7 urte. Urte
askotarako!
Etxekoak; batez ere,
Xabier eta Mikel.



Andoni Gallastegi
Otsailaren 7an
4 urte.
Urte askotarako!
Nerea eta Naiara.




Ioseba Carnicero
Otsailaren 6an
2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Miren Carnicero
Otsailaren 6an
2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Asier Manso
Otsailaren 5ean
9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Rachael Olabarria
Otsailaren 7an
15 urte. Urte askota-
rako! Koadrilako-
ak eta futbolekoak.



Jon Erdabide
Otsailaren 5ean
9 urte. Urte askota-
rako! Etxekoak,
Izaro eta tia Ana.




Olatz Azkarate
Otsailaren 6an
6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Maria Agirrezabal
Otsailaren 8an
2 urte.
Urte askotarako!
Jon eta Mikel.



Maite Aranzabal
Otsailaren 10ean
7 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Jon.



Felipe Landa
10ean urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak, Lurdes
eta Itsusi.



Mikel Leonet
Otsailaren 5ean
urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Maddi Basterra
Otsailaren 8an
urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Olatz.



Lurdes Ayuso
Otsailaren 10ean
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Mikel Otaegi
Otsailaren 6an
15 urte.
Urte askotarako!
Gelakoak.



Miren Ignacio
Otsailaren 9an
3 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Gorka Kortabarria
Otsailaren 7an
2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Gabino Polanco
Otsailaren 5ean
urtebetetzea. Urte
askotarako aitxital!
Familiakoak.

ESKER ONA

Nikolasa Zurutuza Osoro

Bergaran hil zen
2000ko urtarrilaren 22an,
86 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno
eskerrik asko sendikoen izenean.*

*Hurrengo alean,
OTSAILAREN 11 eta 17a
bitartekoen zorion agurrak
argitaratuko ditugu.*

hildakoak

BERGARA

Maria Ugarteburu Aranburu

Urtarrilak 25, 85

Rosario Unamuno Goñi

Urtarrilak 27, 81 urte

Ignacio Gorria Neus

Urtarrilak 30, 84 urte

jaiotakoak

BERGARA

Ainhoa Garai Garitano

Urtarrilak 19

Maria Tena Sanchez

Urtarrilak 26

Xabier Argarate Oregi

Urtarrilak 27

autobusak

Bergara-Antzuola. Lanegunak: 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 15:00, 17:00, 18:00, 20:30.

Zapatuak: 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30.

Domeka eta jaieg.: 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.

Antzuola-Bergara. Lanegunak: 08:30, 09:40,

12:05, 16:40, 17:15, 18:00, 19:35, 20:40.

Zapatuak: 08:30, 12:05, 18:00, 19:35, 20:40.

Domeka eta jaiegunak: 10:00, 17:55, 18:35,

20:30, 22:05.

Bergara-Arrasate-Eskoriatza. Lanegunak:

07:20, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35,

14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35,

20:30*, 21:05*, 21:35*. Zapatuak: 09:35,

11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35,

20:30*, 21:05*, 21:35*. Domeka eta

jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:35, 16:35, 18:35,

21:05*, 21:35*. (*Arrasateraino)

Bergara-Gasteiz. Lanegunak: 06:45, 08:15,

09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15,

21:15. Zapatuak: 07:15, 08:15, 09:15, 11:15,

14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. Domeka eta

jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15,

19:00, 19:15, 21:15.

Gasteiz-Bergara. Lanegunak: 06:30, 07:30,

08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

Zapatuak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30,

18:30, 19:30, 20:30. Domeka eta

jaiegunak: 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30,

18:30, 19:30, 20:30.

Arrasate-Bergara. Lanegunak: 05:50, 06:30,

07:05, 07:20, 08:05, 08:20, 09:05, 09:20,

10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20,

15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20,

20:05, 20:20, 21:20. Zapatuak: 07:20, 08:05,

08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05,

16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20,

21:20. Domeka eta jaiegunak: 09:20, 09:50,

11:20, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05,

20:20, 21:20.

Bergara-Oñati. Lanegunak: 07:35, 09:35,

13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. Zapatuak:

20:45. Domeka eta jaieg.: ez dago zerbitzurik.

Oñati-Bergara. Lanegunak: 07:10, 08:00,

13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. Zapatu,

domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.

Bergara-Eibar. Lanegunak: 06:05, 07:20,

08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20,

13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20,

19:20, 20:20, 21:35. Zapatuak: 08:20, 09:35,

10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20,

17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Domeka eta

jaiegunak: 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20,

17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.

Eibar-Bergara. Lanegunak: 06:15, 06:50,

08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00,

14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45,

19:00, 20:30, 21:00. Zapatuak: 06:45, 09:00,

10:45, 11:00, 13:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00,

18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Domeka eta

jaiegunak: 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00,

16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 21:00.

Bergara-Donostia (Autopistatik).

Lanegunak: 06:45, 08:35, 10:35, 13:35, 14:35,

15:35, 17:35, 19:35. Zapatuak: 07:35, 08:35,

13:35, 14:35, 19:35. Domeka eta jaieg.: 10:05,

19:35.

Bergara-Donostia (Tolosatik).

Lanegunak: 09:00, 18:00. Zapatuak: 09:00,

18:00. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.

Donostia-Bergara (Autopistatik).

Lanegunak: 06:15, 07:15, 08:15, 12:30, 13:30,

15:00, 18:00, 19:30, 20:45. Zapatuak: 08:15,

12:30, 18:00, 19:30, 20:45. Domeka eta jaieg.: 18:00,

20:45.

Donostia-Bergara (Tolosatik).

Lanegunak: 07:00, 16:30. Zapatuak: 07:00,

16:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 19:00.

Bergara-Bilbo. Laneg.: 06:30, 08:40, 14:30,

18:10. Zapatuak: 07:15, 08:40, 14:30, 18:10.

Domeka eta jaieg.: 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.

Bilbo-Bergara. Lanegunak: 08:00, 12:30,

17:00, 20:00. Zapatuak: 08:00, 17:00, 20:00.

Domeka eta jaiegunak: 09:00, 12:30, 17:00,

19:30, 21:00.

DANTZA

► **Increpacion Danza** taldearen "Wad-Ras" gaur, eguakitza, 22:30etan Elorrioko Arriola aretoan.

MUSIKA

► Jam. Datorren eguakitzean, hilak 11, **πLT**, 22:00etan.

► **Udal Musika Bandaren kontzertua** domekan 12:30etan Udal Pilotalekuan, ondoko programarekin: "Get up" (Haderman), "Alceste" (Gluck), "Conquest of paradise" (Vangelis), "Anbotoko dama" (Zapirain), "...and the winner is..." (Brossè), "Nagasaki 1597" (Gonzalez Bastida) eta "San Martinen ereserkia" (Garaizabal).

ERAKUSKETA

► **Hirugarren munduko** herrialdeekin elkartasuna adierazteko erakusketa Antzuolako Udaletxean zapatuan eta domekan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Antzuolako Elkartasun Taldeak antolatuta.

LEHIAKETAK

► **Justo Garate Arriola beka.** 1999ko deialdia historiari gaiei zuzenduta dago. Eskariak aurkezteko epea otsailaren 15era arte zabalik.

KONTZERTUA

Lagartija Nick eta Ill

Non: Jam aretoan
Noiz: gaur, eguakitza, 22:00etan
Sarrera: 1.200 PTA

Lagartija Nick taldeak "Space" bere azken lana aurkeztuko du gaur gauean. Disko honetan Musika Sari Nazionala jaso duen Enrique Morenterekin kolaboratu dute, eta kritikak techno metal estiluan kokatu du lana. Kitarra eta bateria soinuekin batera, hitzek ere berebiziko garrantzia daukate, "Mar de tranquilidad", "Tao te king" edo "No somos máquinas" kantuetan. Andaluziarrek 1991n kaleratu zuten bere lehen lana, "Hipnosis" izenburupean, eta lan harekin izandako arrakastak CBS-Sony disketxearekin fitxatzeko aukera eman zien. Jarraian, "Inercia" (1992) plazaratu zuten eta "Nuevo harlem" singlearen bideo-klipak hainbat sari jaso zituen. Hurrengo lana "Su" izenburukoa izan zen eta "Omega" diskoan beste hainbat artistekin lan egin zu-

ten, Enrique Morente bera, Vicente Amigo edota La barbería del sur tartean zirela. 97an "Val del Omar" argitara eman zuten eta ondoren hainbat aldaketa izan ziren taldean. Hain zuzen ere, hasierako formakuntzatik Antonio Arias baxua da jarraitzen duen bakarra. Gaur bere abesti eza-gunenei errepasoa emango diote Jamen.

Beraien aurretik Ill talde euskalduna arituko da. 97an Donostia Hiria pop-rock lehiaketa irabazi zuten eta bost kantuz osatutako "Mercywaiter" diskoa atera zuten. Led Zeppelin edo Black Sabbath taldeen eragina nabaria da beraien kantuetan.

Jam aretoko astebukaerako programazioarekin jarraituz, domekan Overkill, Anihilator eta Embrace me ocean taldeen emanaldia izango da 20:30etatik aurrera.



Argazkian, Ill taldea, gaurko kontzertuko teloneroak.

Argibideak 943 77 91 58 telefono zenbakian.

► **Gerriko Ikerlan Sariketa.** Ikerlanaren gaia Goierri dagon edozein zientzi alorreko izan daiteke. Lanak jasotzeko epea martxoaren 17an bukatuko da. 943 16 02 82.

IKASTAROAK

► **Moises Aspiazu** dantza taldearen eskutik, helduei zuzendutako arin-arin eta fandango ikastaroak zapatu goizetan. Argibideak 943 76 15 40 zenbakian.

► **Txalaparta.** Arrasaten, otsailaren 11tik maiatzaren 13ra. Argibideak: 943 77 00 65.

DEIAK

► **Hitzaldiak: Euskal Herriko Unibertsitateari**

ARRANO

Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Bergara / Arrasate / Elgoibar
Teleforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

GOXO-TOKI
Iraila 3. Tf. 943 76 12 35
Matxiategi 34. Tf. 943 76 23 31
BERGARA

buruzko hitzaldia izango da martitzenean, hilak 8, Ipintza institutuan. Eguenean, ordu eta toki berean, **Arrasateko Unibertsitateari** buruzkoa.

► **EH. Euskal demokrazia-ren proposamenaren aurkezpena**, eguaztenean, otsailak 9, 19:00etan Miguel Altunan.

► **Hitzaldia: "Zertan datza Lizarra-Garazi akordioa?"**. Datorren eguenean, hilak 10, 19:30etan Udaletxeko Pleno aretoan. Hizlariak: Joxe Iriarte "Bikila" (Zutik), Markel Olano (EAJ), German Kortabarria (ELA), M. Gorrotxategi (HB) eta Pello Urkidi (EA).

► **Hitzaldia: "Jubileo 2000: personas renovadas para una sociedad nueva"** eguenean, hilak 10, 19:30etan Miguel Altuna institutuan (edifizio zaharra). Hizlaria: Iñaki Beristain Arantzazuko frailea.

► **EAJ**. Martxoaren 12ko hauteskundeetan botoa korreoz eman nahi dutenendako bulegoa zabalik izango da Batzokian astelehenetik ostiralera, 19:00etatik 21:00etara. Argibideak 943 76 47 00 zenbakian.

► **Botikak batzeko kanpaina Antzuoián**. Laguntza eskaini nahi dutenek Herriko Eskolara edo farmaziara eraman ditzakete sendagaiak otsailaren 12ra bitartean. Batutako botikak Costa de Marfilera bidaliko dira.

► **Odol ateraldia** eguaztenean, hilak 9, 18:30etan Seminarioko lokalean.

► **Bertso afaria** hilaren 12an, 21:30etan Artatsen, Jesus Mari Irazu eta Jon Maiarekin. Izen-ematea ohiko tokietan.

OHARRAK

► **San Martzial** egunerako jarri eta oraindik kendu gabe dauden mahaiaik otsailaren 15erako erretiratu beharko dira. Agindutako epea pasatu ondoren, Udalak kenduko ditu dauden mahaiaik.

JAIK

► **San Blas jaiak** Murinondon. Gaur, **eguakitz**a, auzo afaria 20:30etan eta jarraian Gezalaga anai-arrebeekin erromeria. Bihar, **zapateria**, mus txapelketa 16:00etan. **Domekan**, hilak 6, Meza Nagusia 11:00etan, ondoren salda banaketa auzo elkartean, 11:45etan dantza erakustaldia eta 12:15etan Saralegi anai-arreben saioa aizkorarekin. Ordubatean txerri harrapaketa eta ondoren harrijasotzaile gazteen III. San Blas saria.

KINTADAK

► **1975**ean jaiotako bazkaria Zabala jatetxean martxoaren 11n. Izen-ematea (3.000 pezeta) Kutxan.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

Nadie conoce a nadie

Eguakitz: 22:30.

Zapatua: 19:30, 22:30.

Domeka: 19:30, 22:30..

Astelehena, ik. eguna: 19:30.

Los teleñecos en el espacio

Zapatua: 17:00.

Domeka: 17:00.

El coronel no tiene...

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema

Musica del corazon

Eguakitz: 22:00.

Deep blue sea

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.

Astelehena: 19:30, 21:30.

Martitzena, ik. eguna: 19:30, 21:30.

ARRASATE. Amaia

Entre gigantes

Eguena, zine-kluba: 21:30.

EIBAR. Unzaga

Sleepy Hollow

Eguakitz: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

House on Haunted Hill

Eguakitz: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

ELORRIO. Arriola

Hoy empieza todo

Zapatua: 22:30.

Domeka: 20:00.

Astelehena: 20:00.

Alice y Martin

Eguena, zine-kluba: 20:00.

AZKOITIA. Baztortxo

Dime que estoy soñando

Eguakitz, zine-kluba: 22:00.

Ana y el rey

Domeka: 16:30, 19:30, 22:15.

Astelehena: 20:00.

NADIE CONOCE A NADIE

Zuzendaria: Mateo Gil.

Aktoreak: Eduardo Noriega, Jordi Mollá, Natalia Verbeka.

≥ 13 URTE

Efektu berezi onenen Goya saria eskuratu berri du Mateo Gilen lehendabiziko luzemetraiak. Alejandro Amenabarraren ohiko kolaboratzaileak Sevillako Aste Santuan girotu du filmea, roll jokoak aitzakitzat harturik. Pisu berean bizi diren *Simón* (Noriega) eta *Sapo* (Mollá) joku arriskutsu batean murgilduko dira...

LOS TELEÑECOS EN EL ESPACIO

Zuzendaria: Timothy Hill.

ADIN GUZTIAK

Jin Hensonek sortutako pan-pinek izugarrizko arrakasta lortu zuten mundu zabaleko telebista kateetan. Oraingoan, pantaila handian eurekin gozatzeko aukera eskaintzen zaigu, haur, gazte eta helduen gozamenerako.

EL CORONEL NO TIENE QUIEN LE ESCRIBA

Zuzendaria: Arturo Ripstein.


Aktoreak: Marisa Paredes, Fernando Luján, Salma Hayek.

≥ 18 URTE

Arturo Ripstein zuzendari mexikarrak (*Principio y fin, Profundo carmesí*) Garcia Marquezzen nobelan oinarritutako filmea egin du. Bere pentsioa jasotzeko zain bizi da koronela (Luján) baina berak izan ezik, bere ingurukoek badakite gutun hori ez dela sekula helduko...

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

**JAUNARTZEAK,
EZKONTZAK,
KINTADAK,
BATAIOAK...**
Karta nahiz menua



ZABALA
JATETXEA • OSTATUA

Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57

Bergaran hain ezagunak diren errelleno eta tostoiak badute kofradia, joan zen astean, hilaren 26an, kofradia hau eratzeko helburuarekin deitutako bilerara 24 pertsona azaldu ondoren. Horietako bat dugu Jose Mari De Borja, eta bera-ekin hitzeggin dugu.

G. Nola sortu zen kofradia bat eratzeko ideia?

E. Bergarako lau pertsona, ni neu barne, Arabako Patataren Kofradiako kideak gara orain dela lau urte-tik. Eta pentsatu genuen Bergaran ere ondo egongo litzatekeela errelleno eta tostoien kofradia bat eratzea. Ideia, berez, Jesus Jaurégi eta biona izan zela esan daiteke. Honela, lehendabiziko bilerarako deialdia egin genuen, eta 11 pertsona bakarrik elkartu ginenez, bigarren deialdi bat egitea erabaki genuen, gure helburua gutxienez 20 lagun biltzea zelako. Azkenean, 24 pertsona inguru elkartu gara, eta beraz, lehenengo urratsak eman ditugu.

G. Zein da kofradia honen helburua?

E. Beno, kofradiak beti eratzten dira produktu baten inguruan, eta edozein kofradiaren helburua produktu horren bultzatzaile izatea da, hau da, produktu hori promozionatzea eta defendatzea. Eta gure kasuan, errelleno eta tostoiak Bergararik kanpo ezagutzera ematea eta bultzatzea.


G. Zer nolako jendea bildu zarete bertan?

E. Adin eta era guztieta-ko jendea elkartu ginen joan zen asteko bileran, baina gehienok badugu gastronomiarekiko nolabaiteko zaletasuna, horrelako zerbaite-tan sartu eta lan egiteko go-goa eta zaletasuna beharrezkoak dira eta.

JOSE MARI DE BORJA

Errelleno eta tostoien kofradiako kidea

“Gure helburua errelleno eta tostoiak ezagutzera ematea da”



Jose Mari De Borja, kofradiaren bultzatzaileetako bat.

G. Zein izango da kofradiako kideon zeregina?

E. Gure helburua errelleno eta tostoiak bultzatzea eta ezagutzera ematea izanik, hainbat ekitaldi antolatu beharko ditugu. Adibidez, buruan darabilgun ideia bat, errelleno eta tostoi-errezetarako buruzko liburu bat argitaratzea da, berauen historia azalduz, errezetak emate-ko.

“Errelleno eta tostoien historia azaldu eta errezetak emango dituen liburu bat argitaratzeko ideia darabilgu buruan”

nez e.a. Bestalde, kofradia guztiek egiten duten bezala, “kapitulua” antolatzeko asmoa daukagu. “Kapitulua”, urtean behin kofradiak antolatzen duen jai-egun bat izaten da. Egun horretan kontzertuak, meza nagusi bat, hamaiketako eta beste hainbat ekitaldi izaten dira, eta gainontzeko kofradien bisita ere jasoko genuke. Oraindik ez dugu zehaztu noiz ospatuko dugun egun hau, baina San Martinetan edo San Martzialetan izango da seguraski.

G. Gozo hauek badaukate historia propiorik? Zer dakigu berauen gainean?

E. Berauen historia azaltzen duen liburu bat argitaratzeko asmoa daukagu, baina oraindik ideia bat besterik ez da. Udaletxeko artxibategian eta Oñatikoan arakatuz eta Bergarako gozogleei galdetuz, ahalik eta informazio gehiena biltzea espero dugu, baina hori guztia egiteko dago.

G. Bergaran hain tipikoak diren gozo hauek, ezagunak al dira kanpoan?

E. Nik uste dut Gipuzkoan batez ere oso ezagunak direla, eta baita Bizkaian ere, baina Euskal Herriko gainontzeko herrialdeetan ez dituzte gehiegi ezagutzen. Hala ere, nik pertsonalki, Gasteizko gozotegi batean ikusi izan ditut, eta baita Madrilan ere. Eta, gainera, ez dira hemendik eramandakoak, baizik eta han bertan egiten dituzte, eta bestelako pasteekin batera saltzen dituzte.

G. Bergaran eratzten den lehendabiziko kofradia da, ezta? Hemen inguruan, ba al dago besterik?

E. Bai, gu gara lehendabizikoak, bai Bergaran eta baita eskualde mailan ere. Hala ere, Eibarren badago bat: Bakailaoaren Kofradia hain zuzen ere.<

Alderdi abertzaleek Iñigo Elkororen aldeko mozioa onartu egin zuten

Abokatu bergararra zapatuan atxilotu zuten Madrilen

EAJ, EA eta EH alderdiek bat egin zuten asteleheneko Plenoan zapatuko atxiloketen inguruko mozioa onartzean. Iñigo Elkororen zapatuan atxilotu zuten Madrilen eta Garzon epaileak kartzelara bidaltzea erabaki zuten martitzenean.

Jakingo duzueenez, Espainiako Polizia Nazionalak Herri Batasunako zortzi jarraitzaile atxilotu zituen zapatuan, ETA erakundearen nazioarteko aparailuko ki-deak direla leporatuta. Atxilotuen artean Iñigo Elkororen 32 urteko abokatu bergararra dago. Iñigo Elkororen Jose Luis Elkororen alkate ohiaren semea da eta gaur egun Amnistiaren Aldeko Gestoren nazioarteko erlazioen arduradunetako bat dugu. Mexikotik zetorrela, polizia Barajaseko aireportuan bertan atxilotu zuen zapatu arratsaldean, Ameriketako HBko ordezkaria den Mikel Kortarekin batera. Antza denez, Iñigo Elkororen Mexikon izan zen bertako gobernuak ETAn kiderik kanporatu ez dezan jostioak egin. Elkororen Garzon epailearen aurrean deklaratu zuen martitzenean eta ETArekin inolako loturarik izatea ezeztatu zuen. Hala ere, epaileak Elkororen eta atxilotutako beste lau lagun kartzelara bidaltzea erabaki zuen.

LAU PUNTUKO MOZIOA

Astelehenean onartutako testuan Madriletik erabakitako ekintza judicial eta po-



Iñigo Elkorori elkartasuna adierazteko Madrilerara joandako bergarar talde bat Entzutegi Nazionalaren aurrean. GARA

lizialaren oportunitate politikoa salatzen da, "Euskal Herriak behar duen normal-kuntza politikorako eragozpena delako". Bigarren puntuak zera dio: "Terrorismoaren kontrako legepean atxilotua izan denez, Iñigo Elkorok bizi dezakeen egoera kezka sortzen digu, horregatik, atxilotu guztiei dagozkien giza eskubideen errespetua eskatzea". Hirugarrenean, alkateari beharrezko diren jostioak egiteko eskatzen zaio, "hiritar guztiei errugabetasunaren printzipioa dagokiela aitortuz, bere egoeraren berri edukitzeko". Azkenik, hartutako erabakiaren berri Barne Ministerizari eta Entzutegi Nazionalari ematea erabaki zen. Ondoren, Jesus Mari Garitanok (EH) hartu

zuen hitza eta zera esan zuen; "inportantea da alderdi abertzaleen arteko adostasuna, Madrilen gobernuak hartutako marketing antzeko neurri honen aurrean. Euskal Herriak hitza duela eta gure bidea topatzen bakan lagatzeko eskatzen dugu". PP eta PSE-EEko zinegotziak ez ziren Plenoan izan.

PROTESTALDIAK

Plenoa bukatu eta gero, 80 herritar inguruk manifestazioa egin zuten herriko kaleetan. "Atxilotuak Iñigo askatu" zioen pankartak hasiera ematen zion manifestazioari. Martitzenean, goizeko hirurak aldera autobus bat irten zen Bergararik Madrilerara bidean, Iñigo Elkorori elkartasuna adierazteko

asmoz. Madrilerara joandako 15 bergararrak Entzutegi Nazionalaren aurrean izan ziren martitzenean. Azken egunotan ere atxiloketen kontrako protestaldiak izan dira Bergaran.

Bestalde, Ipintza eta Miguel Altuna institutuak eta Aranzadi Ikastolako 200 bat ikasleek manifestazioa egin zuten astelehen eguerdian astebukaerako atxiloketak eta bereziki Iñigo Elkororen aurka protesta egiteko. Era berean, bi orduko geldialdia egin zen aipatutako ikastetxeetan. Ikasle talde batek telefonoz adierazitakoaren arabera, Ipintza Institutuko zuzendaritzak ez zien ikasleek bi orduko geldialdia egiten laga eta ordu-bete ingurukoa egin behar izan zuten.



Batasun zibilen udal errejistroa sortzeko proposamena Udaleko Ongizate Zerbitzuak egin zuen.

ARTXIBOA

Batasun zibilen errejistroa onartu zuen Udalbatzak

Ezkondutako bikoteen pareko babesa emango da

Udalbatzak Batasun Zibilen udal errejistroa sortzea eta etorkizunean errejistro berri horren antolaketa eta jarduera arautuko duen araudia sortzea erabaki zuen asteleheneko Plenoan.

Erabakia, aho batez hartu zuten, EAJ-EA eta EHko zinegotzien aldeko botoekin. PP eta PSE-EEko ordezkariak ez ziren Plenoan izan. Honen ondorioz, ezkontzatik kanpo elkarrekin bizitzeko batasuna osatu nahi duten bikote guztiek (sexu ezberdinekoek zein sexu berekoek) udal errejistroan izena emateko aukera izango dute. Errejistro honen helburua elkarrekin bizitzea erabakitzen duten bikoteei eta familiei ezkondutakoek duten babes sozial,

ekonomiko eta juridiko bera eskaintzea da. Errejistroa sortzeko proposamena Udaleko Ongizate Zerbitzuak egin du eta aipatutako alderdiek oniritzia eman zioten astelehenean.

BIKOTEEN AKORDIOA

Batasun errejistro honetan izena emateko eskubidea izateko, bi kideek Bergaran erroldatuta egon beharko dute. Bikote bakoitzaren lehen izen-ematea errejistroaren ardura duen funtzionarioaren aurrean bi pertsonak batera agertuz egingo da, bien artean ezkontzatik kanpo elkarrekin bizitzeko akordioa dagoela adierazteko. Izenez gain, Batasun Zibilen udal errejistroan batasun horietako kideen arteko harreman pertsonalak eta ondasunezkoak arautzen

dituzten kontratuak ere jaso ahal izango dira, baita batasun horretan eragina izan dezaketen gorabehera edo gertaera aipagarriak ere. Bestalde, batasunaren amaierari buruzko oharpenak egiteko nahikoa izango da kideetako batek errejistroan eskaera egitea.

Ezkontzatik kanpoko batasuna ezin izango da errejistroan sartu bikoteko kideetako bat emantzipatu gabeko adin txikikoa bada, edo bi kideak odolkitasunezko ahaideak badira, kide batek urritasun edo anomalia psikikoak baditu edo kide bat ezkontzeko gai ez dela aitortuta badago.

Udal errejistroan izena ematea doanekoa izango da eta datuak beharrezko lege, baldintzekin babestuko ditu Udalak.

Zuhaitzaren azoka datorren zapatuan

Zuhaitz astearen

barruan, datorren zapatuan, hilak 12, zuhaitzaren lehen azoka berezia izango da San Martin Plazan. Zuhaitzen ezauzgarri buruzko informazioa eskainiko da eta basoko makineria saldu eta erakutsiko da.

Gazte lokalaren aldekoen bilera gaur

Gazte lokalaren

aldeko kideek dei egiten diete herriko gazte guztiei gaur, otsailak 4, 19:30etan UNEDeko aretoan egingo den bileran parte hartzeko. Udalarekin izandako negoziazioak eta sortu beharreko lan taldeak aztergai izango dira.

Beasain-Durango autobidea aurreratu

Diputazioan EAJ-

EAK eta EHk lortutako akordioaren ondorioz, Beasain-Durango autobidea uste baino lehenago egingo da. Hasieran aurtun Bergarako saiheshibideko hegoekialdean lan egitea aurreikusten zen baina Diputazioak 1.400 milioi bideratuko ditu Beasain-Durango egiteko, Ormaiztegi eta Zumarraga arteko tartean 2002 urterako amaituta egongo delarik. Deskar-gako tunelaren eraikuntza bi urtetan aurreraturik da eta 3.000 milioi inbertituko dira 2003 eta 2004 urteetan.

Jose Mari Etxanizen aldeko ekitaldiak

Kartzelan dagoeneko 20 urte egingo ditu datorren otsailaren 19an

Jose Mari Etxaniz espetxeratu zutenetik 20 urte betetzen direla eta, Etxanizen aldeko plataformak hainbat ekitaldi antolatu ditu datozen egunotarako. Inaki Ibabe preso ohiak prentsaurrean esan zuenez, "12 urte bete dira dispersioa hasi zenetik. Etxanizek berak bederatzi bat kartzela ezagutu ditu. Eta giltzurrunetako arazoa duen arren, 20 gose greba egin ditu. Senideen egoera ere larria da, kilometro asko egin behar izan dituztelako berarekin egon ahal izateko. Hori gutxi balitz, gainontzeko presoekiko erabateko isolamendu egoeran da Jose Mari". Ibaberen hitzetan,

"95ean zigorraren hiru laurdenak bete zituen eta kalera egon beharko luke. Baina ez diote oraindik askatasunik eman eta duela sei hilabete Salamancako Topas espetxera eraman zuten". Kontxi Ilarduiaren arabera, "bere egoerak txarrera egin du Topasen. Bertaraino joan ahal izateko baldintzak oso txarrak dira eta lehendabiziko gradu egoeran jarraitzen du, isolamendu egoeran eta hutsetik hasia bezala izan da berarentzat trasladua. Gainera, zoro, drogazale eta horrelako jendea ingratzen dute Topasen eta baldintzak penagarriak dira".

Plataformak dei egiten die herritar guztiei Etxani-

zen alde antolatutako ekitaldietan parte hartzeko. Domekan, auto karabana egingo da 18:30etan Frontoitik irtenda eta eguaztenean, hilak 9, bideo emanaldia tabernaz taberna. Eguakitzean, Ene Bada taldea izango da 23:00etan Pol-Polen.

Amnistiaren Aldeko Batzordeak espainiar eta frantziar gobernuen jarrera salatu zuen, "ezker independentista suntsitu eta bake prozesua leherarazteagatik. Ikusi besterik ez dago zapatuko atxiloketak. Muntaiak hutsa besterik ez da izan".



Jose Mari Etxaniz bergarar presoa Topas-eko (Salamanca) kartzelan dago gaur egun.

Txandakako enpresa ingeniariaritzza

**Enpresariekin lanean garatutako lanbide proiektua
Lan kontratua lehen egunetik**

Bilera informatiboa

- Datorren otsailaren 16an, asteazkena, bilera informatiboa izango da prestakuntzaren ezaugarriak eta sarrera baldintzak azalduko direlarik.
- 17:30etan Makina Erremintaren Institutuko instalazioak bisitatuko dira eta 18:00etan bilera informatiboa hasiko da.

Prestakuntza ikastaroa

- Makina Erremintaren Institutuak ingeniariaritzza-probetarako prestakuntza ikastaro bat eskaintzen du. Ikastaroa, martxoaren 11tik maiatzaren 27ra izango da, larunbatetan 9:00etatik 13:00etara.

■ **Makina Erremintaren Institutua**

San Roke auzoa 1
20870 Elgoibar

■ **Tf. 943 74 41 32**

Faxa: 943 74 41 53

E-posta: ingenieria@fmh.es

■ **Orduetgia:**

8:00etatik 13:00etara

eta 14:30etatik 17:30etara



1999/2000 ikasturtea

**cesi aquitaine
poitou-charentes**

Berrigara

396 zenbakia.
2000ko otsailaren 4a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Eneko Azkarate,
Edu Mendibil, Tere Madinabeitia,
Aintzane Irizar.

Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabeleta.
Harpidetzatzailea: Itziar Kortabarría.

Testuen zuzenketak:
Estepan Plazaola, Alex Labaien,
Maripi Laskurain.

Erredakzio kontseilua:
Miguel Angel Elkorobereibar,
Alex Labaien, Gorka Elortza.

Komikiak: Bittor Rodriguez,
Gorka Ortega & Jon Alvarez,
Alex Ugalde, Unai Azkarate.

Kolaboratzaileak: Juan Martin
Elxepuru, Josu Okina, Luis Mari
Agirre, Antxon Agirre Sorondo.

Banaketa: Txantxangorri taldea.

Inprimategia:
Gertu Koop. Elk. (Zubillaga, Oñati).

Azala: Benito Cantero / Berrigara.

Tirada: 5.300 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
irizien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntzaz:



Berogarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurlaritzako
Kultura saila

gutunak

*Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara.
Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.*

GASTEIZ-EIBAR AUTOPISTA

“Vitoria Gasteiz-Eibar autopista: biderik laburrena eta seguruen; naturarekin bat eginik”. Honela hasten da Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratu duen propaganda politika (luxuzko paperean eginda, nola ez!). Hau da hau! Zirkoetan bezala, gure politikoez “oraindik zailago hura” lortu dute: herrialde menditsu batean autopista bat egitea natura errespetatuz. Formula magikorik al dute?

Baina gehiago irakur dezagun, panfleto honen jarraipenak honako hau esaten baitu: “egunetik egunera elkarrengandik hurbilago egotea, komunikazio bideak erraztea, Ipar Hegoaldeko Ardatz Transeuroparrarekin loturak sendotzea, bizi kalitatean eta segurtasunean inbertitzea...” horietan izan dira... hartu dituzten arrazoi garrantzitsuenetako batzuk.

Ez duzu antzematen arrazoiok irakurtzerakoan “kamuflaje” operazio bat?

Benetazko arrazoi bakarra “Ipar Hegoaldeko Ardatz Transeuroparrarekin loturak sendotzea” dela eta beste hirurak literatura komertziala besterik ez direla? Gainera, zientifikoa al da autopistak segurtasuna eta bizi kalitatea ekartzen dituelako ideia? Sarritan errealitateak eta ikerketek ideia hau ukatu dute: istripuen kantitatea eta larritasuna direla eta, edota zarata eta kontaminazioagatik.

Benetazko informazioa barruan egongo ote den nire buruari galdetuz, hara noa, politikoez ez dezatela esan hiritar zintzoa ez naizenik. Baina alperrik! Titular hauekin topo egiten dut: “etorkizunean inbertitzea naturan inbertitzea da” eta “46,2 kilometroko autobide seguru, moderno eta erosoa”.

Publizitate gehiago! Ezer ez peajeari buruz. Tutik ere ez A-8 autopistaren ordain-saria beste hainbat urtetan luzatzeaz. Ezer ez nekazari lurretan izandako galaraz.

Tunelak, bidezubiak, kilometroak, lotuneak, milioiak, tarreak,... besterik ez.

Sistema desarrollista honen gerente gisa, gure politikoez, denon diruarekin, propaganda eta publizitateari ekiten diote. Idazki honenkin, irakurleari lelo komertzialak sinistea eta “erostea” gure esku dagoea gogoratu nahiko nioke. Geure kabuz pentsa dezagun!

Emilen Castro Oteo

GIDA 2000

Gogorazi nahi dizuegu etxean gidarik jaso ez duzuenoi, nahi baduzue BERRIGARAKO erredakzioan, Kultur Etxean, daukazuela jasotzeko moduan. Horretaz gain, datorren urteko gidarako norbaitek zeozer zuzendu nahi badu, deitu dezala BERRIGARARA: 943 76 03 97.

Berrigara

tira biraka gorka ortega & jon alvarez



atrebentzia ezpada

San Balentin eguna datorrela ta, badaukazu amodiozko gutunik idazteko asmorik?**Colin Keilloh**

Ez daukat zeïni. Ingoterran bezela egingo dot igual: gertuko neska bati anonimo bat bialdu eta nunbaiten geratzeko zitia egin.

**Jose Antonio Cid**

Ez daukat baiña zeïni bialdu! Ez nago maiteminduta oraingo. Baiña, neskarik izan ezkeru, ba igual idatziko notsake zeoze.

**Mikel Mariño**

Ez dot idazten. Ez naiz idazteko zalia. Nahixago dot larrosa bat edo eraztun bat erregalazia, presupuestuaren arabera.

**Virginia Orrantia**

Ez daukat ohiturarik. Dana dala, San Balentin ospatuko dot, afari batekin edo. Opari bat be egingo dot segunenez: erropia, bonboiak...

**Maria Galarraga**

Berdin jat San Balentin eguna. Gaiñera, maitasun kontuak egunerokuak izan bihar die, ez bakarrik egun horretakuak.

**Ana Arealillo**

Ez dot amodiozko gutunik bialtzen, ezta jasotzen be. Ez gara nunbait oso erromantikuak. Baiña opariren bat-ero egitten jau elkarri.


bai, esan!



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97. Identifikazioa beharrezkoa.

IBARGARAI KALEAN ZAKARRONTZI BEHARRA

Ibargarain bizi den emakume batek (ez du bere izena ezagutzera eman nahi) mezu bat utzi digu erantzungailuan. Emakumea oso haserre dago orain hilebate inguru denda berria zabaldu zelako Ibargarai kaleko 2. zenbakiaren ondoan eta berak dioenez, astebukaeretan paperez eta bestelako zikinkeriz josita egoten da dendaren sarrera. Itxura denez, besteak beste, gaztetxo ugari ibiltzen da dendan litxarkeriak erosten eta jendeak lurrera botatzen ditu paperak, plastikoak eta bestelakoak. Inguru horretan zakarrontziak jartzea eta gaztetxoei kontu handiagoz ibiltzeko eskatu nahi die emakumeak. Lotsagarria iruditzen zaio batzuetan Ibargarai kaleak erakusten duen itxura.

MIZPILDI**OKINDEGIA**

Matxiategi 1
943 76 72 73

Mizpildi 8
943 76 12 32

**GURIA
Taberna**

Bidekurutzeta 5
☎ 943 76 20 34



gizon & emakume

Barrenkalea 35 BERGARA

CAMACHO

Drogeria Usaindegia

Bidekurutzeta 24 BERGARA
☎ 943 76 13 35

Sugoi**ERLOJUAK, ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua 2 behe
☎ 943 76 59 54 BERGARA

Bolu
liburutegia**Enmarkazioak****Ispiluak neurrira****Zurezko artikuluak****Bergarako oleo eta****lumatoxoak**

Koldo Elizalde 1, behe
Tf. 943 76 70 60



Amondarain

Gure Ametsa etxea, *Tolosa*

Santa Luzia auzoa


Telefonoa: 943 65 33 54.

Urtarriletik apiril bukaerara arte zabalik.

Bertako janaria, menua.

Giro aproposa.

150 lagunentzako lekua.



Laka-Erdi

Milloi gaina 26, *Berriatua*

Markinatik Lekeitiora bidean

Telefonoa: 94 613 91 78.

Urte osoan zabalik.

Bertako janaria.

Lokal klimatizatu eta beheko sua.

Ezkontzak eta jaunartzeak enkarguz.

Autobusez joan daiteke.

Ziburuak eta poniak doan umeendako.

350 lagunentzako lekua.



*Egin
txotx!*

Txotxetik edan T o l a r e sagardotegietan!



Elutxeta

Elutxeta baserria, Urnieta

Telefonoa: 943 55 69 81.

Apiril bukaerara arte zabalik.

Aste barruan egun osoan txotxetik.

Astelehenetan itxita.

Erretegia urte osoan.

Bertako janaria.

200 lagunentzako lekua,

eserita nahiz zutik.



Eizmendi

Osinaga auzoa, Hernani

Telefonoa: 943 55 64 05 / 670 635 671.

Apiril bukaerara arte zabalik.

Erretegia urte osoan.

Bertako janaria nahiz norberak ekarria.

150 lagunentzako lekua.



Bergara gauez

Pol-Pol argazki taldeak, Bergara gauez erretratatzeko irteera bat antolatu zuen joan zen asteko astelehen iluntzean. Zazpi lagun aritu ziren Bergarako hainbat txokori argazkiak ateratzen: **Benito Cantero, Jon Landa, Unai Ziarsolo** (berea da aldameneko argazkia), **Jabier Vicente, Juan Antonio Unzurrunzaga, Imanol Mondragon eta Edu Moreno.**

1926 eta 1956koen kintadak

1926an eta 1956an jaiotakoak ditugu honako argazkiotakoak. Lehendabizikoek, hilaren 15ean izan zuten bazkaria Bergarako jatetxe batean; besteek, berriz, hilaren 29an Osintxuko jatetxe batean afaldu zuten, eta majo ibili ziren argazkian ikus daitekeen moduan.



ARGAZKIAK: XINU



Mus Txapelketa Uberan

Ubera auzoan, joan zen hilaren 21ean, eguakitzean hasi eta domekara arte **San Pauluak** ospatu zituzten. Eta hainbat ekitaldiren artean, zapatu arratsaldean mus txapelketa jokatu zen **Jaolatz**a elkartearen, 16 bikote aritu zirelarik elkarren aurka lehiatzen. Azkenean, "Atxotegi" aita-semeek eraman zuten txapela, argazkian ikus daitekeen moduan.



JESUS MARI LAZPIUR

adituen esanetan

Erretzeari lagatzea

Udaleko Ongizate Zerbitzuak erretzeari lagatzeko antolatutako ikastaroan hiru talde ari gara eta ikastaroa sei astekoa da, astean behin ordubetez biltzen garelarik. Esan behar da erretzeari lagatzea oso zaila dela eta, dirudienez, tabakoa da erabat uzteko drogarik zailena. Kalkulatzen da biztanlegoaren %33 inguru errezailea dela. Gizonezkoak nagusi izan dira erretzaileen artean baina azken urteotan, gazteen kasuan, emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago erretzen dutela ikusi

da. Tabakoa lagatzeko arrazoi nagusia osasuna izaten da, izan ere laringe eta biriketako minbizi kasuen %90 tabakorekin lotuta dago. Tabakoa oso txarra da osasunerako eta jendea gero eta kontzientziatuago dago arazo honekin.

Ikastaroan ari diren lagunek, batz bestea, 20 zigarro erretzen dituzte egunero eta tabakoa lagatzeko metodo ezberdinak dauden arren (norbere kontura, sasimediku baten laguntzaz...) guk




ESTITXU FERNANDEZ

Psikologoa

"Ikastaro honetan, talde terapia erabiltzen dugu. Menpekotasunaren kasuan alderdi psikologikoa da gainditzeko nekezena"

talde terapia erabiltzen dugu. Tabakoa erretzen dugun egoerak komentatzen dizkiogu elkarri eta egoera horiei aurre egiteko nolabaiteko "trukoak" lantzen ditugu. Esate baterako, kafea hartzen gaudela, gure ingurukoek erretzen badute, egoera hori gainditzeko ura edan, txiklela ahora eraman... Horrekin ez dugu tabakoa lagatzea lortuko baina lagungarria izango zaigu. Menpekotasunaren kasuan, alde batetik, alderdi fisikoa (nikotinaren adikzioa hiru bat egunetan kendu daiteke) eta, bestetik psikologikoa (egoera ezberdinetan erretzeko daukagun ohitura) daude. Azken hau da gainditzeko nekezena, erretzea gure eguneroko hainbat ekinzakin lotzen dugulako (urduri nagoeanean, kafea hartzean, bazkalostean...). Tabakoa lagatzeak sakrifizio bat eskatzen du eta bakoitzak ikusi behar du noraino utzi nahi duen. Nolanahi ere, gure ikastaroetan parte hartzen dutenen %50-60ak erretzeari lagatzen dio.<



Adituen arabera, tabakoa da erabat uzteko drogarik zailena. ARTXIBOIA

bergarako errota



OTAITZ ERROTA

Antxon Agirre Sorondo

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO), 18931. zenbakidunean hain zuzen, hauxe agertu zen:

"Jose Andres Albisua, Juan Jose Gorosabel, Prudencio Unamuno, Jose Francisco Alkorta eta Pascual Maiztegi jaunek, Bergarako bizilagunek, Otaitz errekatik doazen uretatik 50 litro segundoko desbideratu eta erabiltzeko baimena eskatu zuten, Bergarako Elkorobarutia baserriko lursailetan egin nahi zuten irinetarako errota mugitzeko indarra izateko".

GAO horretan baimena ematen zaie aipatutako errota egiteko.

Urte horretan bertan jaso zen 13 baserriren artean, euren erabilerarako.

Otaitz errekatiko urak erabiltzen zituen, bere eskuinaldean dago eta. Bi harri pare zituen, burdinazko bi turtokiren bidez mugitzen zirenak.

Harriak gastatzen zirenean eta pikatu beharra zutenean, Pedro Jose Garaitanoindia bazkideak (1961ean hil zen) egiten zuen.

Gaur egun oso hondatuta (aurri egoeran) dago.

Kokalekua: Elorregi auzoan, San Esteban ermitaren eta Elkorobarutia baserriaren azpialdean.<

zertan datza?

lizarra-garazi akordioa ■

AURKEZPEN HITZALDIA

Otsailaren 10ean, eguena

19:30etan

Udaletxeko Pleno Aretoan

Hizlariak

Joxe Iriarte "Bikila". ZUTIK

Markel Olano. PNV-EAJ

German Kortabarria. ELA

M. Gorrotxategi. HB

Pello Urkidi. EA



LIZARRA
GARAZI
a k o r d i o a



SAN MARTIN


HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA (HH-LH)

Boni Laskurain 25. Tf. 943 76 21 47

Ordutegia: 09:00etatik 13:00era eta 15:00etatik 17:00etara

SAN MARTIN - PI

B e r g a r a k o i k s



- Integratzailea
- Euskalduna
- Anitza
- Doakoa

2 urtetik 16 urtera

2000-2001 ikasturterako matrikulazio epea otsailaren 7tik 18ra

PINTZA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH)

Boni Laskurain 17-19. Tf. 943 76 31 42 / 20 82

Orduetgia: 09:00etatik 13:00era eta 15:00etatik 17:00etara

OHARRA

Batxilergo eta zikloetarako matrikula beranduago izango da. Informatuko zaituztegu garaiz.

PINTZA - M. ALTUNA

k s t e t x e p u b l i k o a k

Urtarrilaren 10eko zozketa: 100.000 pezetako 10 erosketa-bono

1.000.000 pezeta

Zorionak denoi!



Sariak banatu dituzten komertzioak:

Ninika loradenda
Imaz harategia
Maher oihalak

Mujika ferreteria
Lislore loradenda
Jauja kirolak

Camacho perfumeria
Larrañaga gozotegia
Kilika dekorazioa
Agirre jantzidenda

..Irimo



ZABALDU BERRIA!

Inalanbrikoa
Poltsikokoa
Telefonia fijoak
Osagarriak
Faxak

Deba ibaia

Zurradero 4



943 76 59 52


Ibargarai hiribidea

Seminarioa / M. Altuna

Telefonica
MoviStar

banatzaile
ofiziala





Udal artxibategia

Herriko testu eta argazki fondoan gordeleku

Artikulu hau irakurtzen ari zareten asko eta asko ez zineten inoiz izango Udal Artxibategian; seguruena, askok non dagoen ere ez duzue jakingo, eta gutxi batzuk izango zarete bertan zer gordetzen den jakingo duzuenak. Hainbat lanetarako, eta, bereziki, herriko gaien inguruko jakinmina dutenentzako, altxor ugari gordetzen dira bertan.



UDAL ARTXIBOAREN GIDA

Arantzazu Oregi da Udal Artxibategiko arduraduna. Berak zabaldu dizkigu artxibategiko ateak eta bertan aurki daitezkeen fondoei buruzko azalpenak eman dizkigu. Egun hauetan, Bergarako Udal Artxibategiaren Gida banatzen ari dira. 2.000 ale kaleratu dituzte herriko elkarteetan-eta banatzeko. Gidako lehen orrian zera irakur daiteke: "Udal Agiritegiak garai berri bati ekin dio. Al-

de batetik, 1995ean Udaletxea berritu zenean, Agiritegia bertan kokatzearekin instalazio egokiak eskaintzea lortu zen. Bestalde, datu baseetan gordetako fondoak ISAD (G) arauaren bidez antolatatu eta deskribatzeak fondo guztietarako sarbidea ematen du, maila ezberdinetan izanda ere. Bi gertaera horiek eraman gaituzte gida hau argitaratzera; oraindik egiteko bide luzea dagoela jakin arren, ahalik eta jende gehienarentzat ireki nahi dugu agiritegia".

TESTU-FONDOAK ETA IKUS-ENTZUNEZKO FONDOAK

Gida euskaraz eta gazteleraz idatzita dago eta, horretaz gain, frantsesez la-

Testu eta ikus-entzunezko fondoak, eta hainbat eta hainbat dokumentu interesgarri dago gordeta Udal Artxibategian. Udaletxea berritu zenetik, gainera, era honetako argiriak gorde behar diren moduan sailkatuta eta gordeta daude. Izan ere, 1995ean gaur eguneko Udaletxean kokatu aurretik, herriko hainbat etxetan gorde ziren udaleko agiriak: San Pedro parrokian, Ospital zaharrean, Irizar Etxean, Errekalde jauregian Iargi fondoarekin batera... Eta, noski, horrelakoetan gertatu ohi den bezala, haruntz eta honutz erabiltzen diren dokumentuak, azkenean, ondatu..., edo bidean galdu egiten dira.

Udal Artxibategian bi fondo mota daude: batetik, testu-fondoak, eta bestetik ikus-entzunezkoak




Agiriak eta argazkiak behar bezala gordetzeko prestatuta dago Udal Artxibategia. Kotsularako gela bat ere badago ikerketak-eta egiten ari direnendako. ARGAZKIAK: BENITO CANTERO

burpentxo bat ere badakar. Bertan, agiritegian aurki daitezkeen fondoeren berri ematen da. Bi eratako fondoak bereizten dira: testu-fondoak eta ikus-entzunezkoak.

Testu-fondoaren artean, honako 7 hauek aurkitu ditzakegu artxibategian: Udal fondoa (azpifondo historikoa eta administratiboa bereizten direlarik), Eskribautzak, Parrokiako agiritegiak, Bergarako Errege Seminarioa, Usandizaga institutua, Zerrajerako (Ucem) Labegaraierako lantegia, eta Bergarako Kultur Ekintza. Ikus-entzunezko fondoaren artean, berriz, beste hauek: Kultura departamentuaren bilduma, Udal Agiritegiko bilduma, Juan Idigorasen fondoa, Roman Larrañagaren fondoa, Valleko kontearen fondoa eta Ariz-Ondo aldizkariaren fondoa.

Agiritegian eskaintzen diren zerbitzuen berri ere ematen da gidan. Besteak beste, informazioa eta erreferentziak, kotsularako aukerak, erreprografia eta bisitaldi gidatuak, erakusketak zein erakundeekiko lankidetzak.

Argitaratu berri den gidan, besteak beste, fondo bakoitza nola sailkatu den, kontserbazioari buruzko historia edota nola eskuratu den zehazten da. Udal fondoa, esaterako, San Pedro parrokiaren zegoen, 1500. urtean egin zen inbentarioan azaltzen denez. 1859an, berriz, Ospitale zaharrera eraman zen, 1867an Zaharren etxera, eta 1981ean Epaitegiko beheko solairuan zegoen. 1989an Errekalde jauregiaren eraman zen eta han gordeta egon da 1995era arte, Udaltxeraren eraman zen arte.



ZER AURKITU DEZAKEGU FONDOETAN

Bergarako Hiribildu Agiria (1268. urtekoa) da Udal Artxiboan aurkitu daitezkeen dokumenturik zaharrena. Bestalde, 1512 urtetik 1871era arte, Eibar, Mutriku eta Soraluzeko eskribauek sortutako dokumentuak (auziak, eskriturak eta protokoloak) ere aurki daitezke artxiboan.

Parrokietako agiritegiak, bestalde, mikrofilmaturatu daude (ez dira originaletan) eta 1373 urtetik 1989ra arteko San Pedro, Santa Marina, San Andres, San Emeterio eta San Zeledonio, eta San Prudentzioko agiriak gordeta daude 60 metroko pelikulan. Historian zehar Bergarako Errege Seminarioan izan diren ikastetxeek sortu edo jasotako dokumentazioa ere aurkitu dezakegu Udal Artxibategian. Jesusen Lagundia,

Euskal Adiskideen Elkarteak, Estatuak eta Domingotarrak izan dira Seminarioan 1593tik 1994ra arte. Seminarioko fondo honetan, ikastetxeen espedienteak, ematen ziren ikasgaiak, ikastetxearen administrazioa eta abar daude.

Esan behar da garai baten Bergarako Errege Seminarioa Goi Mailako Gipuzkoako Institutua izan zela, baina gerrate karlistak zirela eta, Errege Seminario ospitale militar gisa erabili zen eta institutua Donostiara eraman zen. Hasiera batean, behin behinerako, baina gero betirako geratu zen han. Handik urteetara Peñafloreda institutua bilakatu zen eta, ondoren, Usandizaga institutua. Hortaz, garai bateko Seminarioari buruzko dokumentu asko Usandizaga institutuan zeudenez, 1997an dohaintza egin zion Bergarako Udalarri,



dokumentu horiek Bergarako Artxibategian gordetzeko. Artxibategian gordeta dauden beste testu-fondoak Zerrajerako Bergarako lantegikoak eta Bergarako Kultur Ekintzarenak dira.

ARGAZKI PILOA

Ikus-entzunezkoei dagokienez, alde batetik, Bergarako Udaleko Kultura departamentuak eskuratutako argazkiak eta Udal Agiritegian jasotako hainbat irudiren bilduma aurkitu ditzakegu. Horretaz gain, Juan Idigoras argazkilari zaletuak 1960 eta 1998. urteen artean herrian ateratako hainbat eta hainbat argazki eta baita Roman Larrañaga argazkilariak 1960 eta 1990 urteen artean ateratakoak ere.

Bestalde, Errotalde jauregiko nagusia zen Ignacio Murua Balzola edo Vallekoteak 1850 eta 1950. urteen artean ateratako hainbat argazki eta Arizondo aldizkariak sortutako argazki artxiboa ere Udal Artxibategian daude. Fondook denak, argazkien jabeek Udalarari egindako dohaintzari esker gordetzen dira artxibategian. Argazki piloa dira, eta sailkatzen eta dagokion moduan gordetzen ari da Pili Azkarate. Digitalizatu ondoren, datu base egokian sailkatzen dituzte. Une honetan, herriko beste argazkilari famatu baten familiakoekin harremanetan ari da Udala, argazki fondo berria eskuratzeko.

ARTXIBATEGI ABERATSA

Arantzazu Oregiren esanetan, Bergarako Udaleko Artxibategi aberatsa da gordetzen duen dokumentuengatik.

“Udalak sortutako administrazio agiriez gain, beste hainbat fondo pribatu ere baditu eta hau ez da oso normala izaten. Bergarako Udalak sortutako dokumentuak aberatsak dira, eta horri gehitu behar dizkiogu Bergarako Errege Seminarioak edota beste erakunde edo pertsona pribatu batzuk sortutako fondoak” esan digu Arantzazu Oregik.

Bestalde, Udaletxea berritu zenetik hezetan eta tenperatura egokian eta toki seguruan gordeta daude agiriak. “Dokumentu gehienak beheko sotoan gordeta daude. Sutearen kontrako neurriak hartuta dauzkagu eta, bestalde, kontsultarako ondo sailkatuta eta euskarri egokietan gordeta ditugu” diosku. Mikrofilmak, disko konpaktoak, papeira eta pergamina darabilte.

Udalak sortutako fondoez gain, kanpokoak ere badaude, dohaintza, hitzarmen eta abarren bitartez iritsiak


Normalean, barruko kontsultak egingeko, hau da, Udaleko beste departamentuetakoek erabiltzen dute artxibategia. Hala ere, asko dira ikerketetarako eta bertaraten diren pertsonak. Horregatik, ahalik eta erosoan ibil daitezten, liburutegi txiki bat eta agiriak kontsultatzeko toki bat egokitu dira.

Bestalde, argazki fondotik kopiak atera daitezke. Paperean, CDan edota disketean jaso daitezke. Horretarako, tasa merke batzuk ordaindu eta baldintza batzuk bete behar dira.

Udal Artxibategia astelehenetik eguakitzera egoten da zabalik (8:00-13:30 eta 14:30-17:00) eta posta elektronikoz ere egin daitezke harremanak, helbide honetan: udalagiriturgia@bergara.net. <

1268ko DOKUMENTUA

Udal Artxiboan aurkitu daitekeen dokumenturik zaharrena Bergarako Hiribildu Agiria da, 1268. urtekoa. Bergarako herria Alfontso X. Jakintsuak sortu zuen Gasteizko Foruan oinarriturik, 1268ko uztailaren 30ean emandako pribilegio bidez. Honekin lotuta, esan dezakegu XIV. mendean zehar Oxirondo eta Uzarragako elizateetako bizilagunak herriko bizilaguntzat hartu zirela eta 1629an, Uzarragako Elizateak Bergarako herritik banandu eta hiribildu-forua lortu zuela. Oxirondoko elizateak 1630ean bereizteko egin zuen saiakerak ez zuen arrakastarik izan.<



Debagoieneko kirol zirkuitua martxan otsail erdialderako

lazko zirkuituaren sari banaketa zapatuan egin zen

Zapatuan Debagoieneko udaletako kirol zerbitzuek iaz antolatutako kirol txapelketa zirkuituaren sari banaketaren ekitaldia izan zen Oñatiko Zubikoa Kiroldegian. Bertan, urtean zehar, pala, tenis, frontenis eta squash txapelketetan aritutako kirolariak elkartu ziren.

Honako hauek izan genituen zapatuko sarituak: pala zirkuituan Jon Alberdi bergararrak eta Iñigo Agirrebeña eibartarrak osatutako bikotea izan genuen onena, Rodolfo Rico eta Unai Andonegi ermuarren eta Edorta Antxia eta Gorka Madinabeitia atxabaltarren aurretik. Tenisean, Jose Caballero arrasatearra izan zen txapeliduna, bigarren Jorge Aranes bergararra sailkatu zen eta hirugarren Ismael Zubia oñatiarra. Frontenisean, berriz, Patxi Vallejo eta Xabier Albusua bergararrak nagusitu ziren, eta bigarren eta hirugarren postuan Candido Hurtado eta Jose Izquierdo, eta Iñaki Sanchez eta Kepa Garcia Arrasateko bikoteak sailkatu ziren. Azkenik, squash zirkuituan, Garikoitz Ibarzabalek eskuratu zuen lehen postua, Jorge Gorosabel arrasatearren eta Juan Antonio Varilla atxabaltarraren aurretik. Guztira, tenisean 26 lagun aritu ziren iazko zirkuituan, squashean 38 kirolari izan ziren lehian, eta frontenis eta pala txapelketetan 38 eta 20 bikote aritu ziren.



Zutik, Agirrebeña, Alberdi eta Aranes; makurtuta, Albusua eta Vallejo.

1998an jarri zen martxan zirkuitua, federatu gabeko kirolariei zuzenduta.

TENISA BERGARAN

Antolatzaileak pozik azaldu ziren joan zen urteko edizioan lortutako partaidetzarekin eta aurtengo zirkuitua aurkeztu zuten. Otsailaren hirugarren astean goian aipatutako lau kiroltako txapelketak martxan hasiko dira; Bergaran, otsailaren 19tik aurrera, lehendabiziko tenis txapelketari hasiera

emango zaio, bide batez, Labegarrietan egiten ari diren tenis pista ofizialki inauguratuz. Era berean, maiatzetik uztaile erdialdera bitartean pala txapelketa jokatu da gure herrian. Izenematea Kirol Zerbitzuan egin behar da; bazkideek 1.500 pezeta eta gainontzekoek 2.000 pezeta ordaindu beharra dute.

MASTERRA

Aurten, nobedade gisa, kirol bakoitzean urtean izan-

go diren hiru txapelketetan emaitzarik onenak lortzen dituzten lehendabiziko hamarrekin masterra jokatu dute abenduan. Bergaran fronteniseko txapelketa jokatu da abenduko hirugarren eta laugarren astetan.

Zapatuko sari banaketa ekitaldian, sarituez gain, Debagoieneko Kirol Zerbitzuetako ordezkariak izan ziren eta sari banaketaren ostean luntxa banatu zen bildutakoen artean.

Bergarak Aloñaren aurka galdu Deba Arroko txapelketan

Seniorretan bakarrik izan ziren nagusi bergararrak

Bergara K.E.ko pilota sailak ez zion hasiera onik eman martitzenean hasi zen Deba Arroko pilota txapelketari, Udal Pilotalekuan jokatuako partiduetan oñatiarrak nagusitu baitziren. Kadete mailan Asier Larrañagak eta Beñat Inarrak ezin izan zuten menderatu Aloña Mendiko bikotea eta 9 eta 22ko emaitzarekin galdu zuten. Jubenil mailako partidua, berriz, borrokatuagoa gertatu zen, baina honetan ere txantxiarrak izan ziren garaile. Julen Aranburu lesionatua zegoenez, Joseba Herran eta Joseba Orgaz atera ziren kantxara, baina azkenean 19 eta 22ko emaitzarekin galdu zuten. Reyes Azkoitiak jubencil eta senior mailako partidua irabazteko asmoa zekukan, baina bere itxaropenak erdizka bete ziren, izan ere senior mailan bakarrik lortu zuten garaipena etxeok.



Argazkian, Bergara K.E.ko pilotari talde bat.

ARTXIBOA

Ander Muguruzak eta Igor Gutierrezek partidu bikaina jokatu zuten eta garaipena eskuratu zuten 22 eta 17ko emaitzarekin. Udal Pilotalekuan bildutako zaletuek seniorren arteko partidua ere ondo aritu zuten eta 50 m. tximeleta proban 31 segundu eta 26 ehuneko denbora markatu zuten.

Txapelketarekin jarraituz, datorren astean Eskoziarren aurka jokatu du-

te bergararrak eta otsailaren 15ean, berriz, Arrasate hartuko dute etxean. Antzuolako taldea jubencil eta senior mailako partiduetan nagusitu zitzaion martitzenean Arrasateri. Senior partiduan Eduardo Samaniego bergararra antzuolarrekin aritu zen eta 22 eta 7ko emaitzarekin irabazi zuten.

Eskubaloi ikastaroa

Joan zen astelehenean izan beharreko eskubaloi ikastaroa astelehenera arte, hilak 7, atzeratu da Jose Julio Barrenetxea entrenatzailea gaisorik izan delako. Deba bailarako eskubaloi jokalariei eta entrenatzaileei zuzendutako ikastaroa astelehenean 19:00etan hasiko da, La begarrietako Kiroldegian. Argibideak 943 77 91 67 zenbakian.

Bizkortasun txapelketa

Eneritz Muguruzak bigarren postua eskuratu zuen zapatuan, goizez, Udal Igerilekuan jokatuako bizkortasun txapelketan. 100 estiloko proban gutxiatik ez zuen Eneritzek bere marka hobetu. Bestalde, Antxon Maiztegi ere ondo aritu zen eta 50 m. tximeleta proban 31 segundu eta 26 ehuneko denbora markatu zuten.

Axen Garitano Pirenan

Axen Garitano bergararra Pirena txakur-leren zeharkaldian parte hartzen ari da. Aurtengo edizioarekin Garitanok seigarren aldiz hartzen du parte proba ezagun honetan. Pirena Europako txakur leren lasterkerarik garrantzitsuen da eta aurten bere 10. edizioa betetzen du. Gaur, La Molinan (Lleidan), amaitzekoa zen Pirena zeharkaldia.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Amara Berri

Infantilak

Zapatua. 11:00. Ipintza

Bergara-Tolosa

Hirugarren maila

Zapatua. 16:15. Agorrosin

Bergara-Zarautz

Ohorezko mailako kadeteak

Zapatua. 18:00. Ipintza

SASKIBALOA

Bergara-Hirurok

Jubenil mutilak

Eguakitza. 19:00. M. Lagundia

Bergara-Tolosa

Senior mutilak

Zapatua. 19:00. Kiroldegia

Bergara-Oriogi

Senior neskek

Zapatua. 16:00. M. Lagundia

Bergara-Goierri

Kadete mutilak

Domeka. 10:30. M. Lagundia

ESKUBALOA

Bergara-Leizaran

Kadete mutilak

Zapatua. 16:15. Kiroldegia

ARETO FUTBOLA

Bergara-Laskorain

(Tolosa)

Senior mutilak

Eguakitza. 22:30. Kiroldegia

Bergara-Txindoki

Jubenil mutilak

Zapatua. 12:30. Kiroldegia

Bergara-Zestoa B

Neskek

Domeka. 12:00. Kiroldegia



Labegaraietako futbito txapelketa

PARTIDUAK

ZAPATUAN KANPOAN

- 09:00: Bildurbarek Opel/Lam-Amilotx
- 10:00: Patatus-Patxaran Team
- 11:00: Ion Autoak-Uve Bikoitza
- 16:30: Etengabe-Pinturas Bergara
- 17:30: Ortzzi-Vacalouras
- 18:30: Irubide-Azpeitxi Jatetxea

- Patatus
- Amilotx
- Amilotx
- Ortzi
- Irubide
- Ortzi

DOMEKAN BARRUAN

- 09:30: Errotagain-Fac
- 10:30: Xurrupak-Ufala
- 16:00: Bar Canalejas-Guadalest
- 17:00: Aterpe-Komando Piperrak
- 18:00: Torrekua-A Ze Flaxa Etxagi
- 19:00: Buya-Shaktale
- 20:00: Moskis-La Juve

- Xurrupak
- Errotagain
- Aterpe
- Torrekua
- Buya
- La Juve
- Shaktale

DOMEKAN KANPOAN

- 11:30: Tom Cat-Urruxurtu
- 12:30: Ari Ari-Eri
- 16:00: Mongatxurak-Bayer
- 17:00: Mo(ko)lotov-Pagomendi
- 18:00: Amozkibar-Agirrebeña

- Eri
- Tom Cat
- Mo(ko)lotov
- Agirrebeña
- Mo(ko)lotov

EMAITZAK

A MULTZOA

Pinturas Bergara-Moskis	6-4
Mo(ko)lotov-Ari Ari	5-2
Pagomendi-Etengabe	3-1
Azpeitxi Jatetxea-Sirimiri Eri	6-1
La Juve-Irubide Jatetxea	1-13

B MULTZOA

Agirrebeña Jatetxea-Patxaran Team	2-12
Urruxurtu-Mongatxurak	1-3
Tom Cat Argandolas-Patatus	4-1
Bayer-Bildurbarek Opel Lam	4-1

C MULTZOA

A Ze Flaxa Etxagi-Buya	3-6
Shaktale-Ortzi	0-3
Torrekua-Ion Autoak	2-3
Soropotoak-Uve Bikoitza	1-6
Vacalouras-Agiñazpi	5-3

D MULTZOA

Ufala-Txipiron	2-5
Errotagain-Aterpe	7-3
Guadalest-Komando Piperrak	10-1
Artusamak-Bar Canalejas	1-4
Fac-Xurrupak	7-3

GORA ETA BEHERA



Pagomendi eta Buya

Pagomendik sendo darrai A multzoan lidergoari eutsiz. Jokatu dituen partidu guztiak irabazi dituen txapelketako talde bakarra da. Bestalde, Buya taldeak ezustekoa eman zuen azken jardunaldian, C multzoko liderrari nagusituz.



A Ze Flaxa Etxagi

Txapelketako talderik indartsuenetakoa eta une honetan C multzoko liderra dena, kaskar ibili zen azken jardunaldian. 8. postuan dagoen Buyaren kontra 3-6 galdu egin zuen.

ARGI!

Ez aurkezteagatik 3 puntu gutxiago

Antolaketa Batzordeak 3 puntu kendu dizkio Shaktale taldeari Ortziaren kontrako partidua jokatzera ez agertzeagatik. Honenbestez, partidua 3 eta 0 galdutzat eman zaio Shaktale taldeari.

SAILKAPENAK

A multzoa

	P	J
1. Pagomendi	36	13
2. Azpeitxi Jatetxea	27	13
3. Irubide Jatetxea	25	13
4. Sirimiri Eri	23	13
5. Pinturas Bergara	19	13
6. Etengabe	15	13
7. Ari Ari	13	13
8. Moskis	9	13
9. Mo(ko)lotov	7	13
10. La Juve	6	13

C multzoa

	P	J
1. A Ze Flaxa Etxagi	34	13
2. Ortzi	30	13
3. Shaktale	22	13
4. Uve Bikoitza	22	13
5. Vacalouras	17	13
6. Ion Autoak	16	13
7. Agiñazpi	13	13
8. Buya	13	13
9. Soropotoak	7	13
10. Torrekua	7	13

B multzoa

	P	J
1. Bayer	32	13
2. Mongatxurak	27	13
3. Bildurbarek Opel Lam	22	13
4. Amozkibar	22	12
5. Urruxurtu	20	13
6. Patxaran Team	18	13
7. Amilotx	13	12
8. Tom Cat Argandolas	12	13
9. Agirrebeña Jatetxea	11	13
10. Patatus	1	13

D multzoa


	P	J
1. Errotagain	35	13
2. Fac	29	13
3. Guadalest	28	13
4. Bar Canalejas	25	13
5. Artusamak	25	13
6. Xurrupak	16	13
7. Txipiron	13	13
8. Komando Piperrak	4	13
9. Aterpe	2	13
10. Ufala	1	13

Informazio hau babesle hauei esker:

OGIZUN

koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13



BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza
2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19

mahoneroak



JUAN ANGEL TORRE
BKEko bazkidea

Etxeko partiduetara joateko ohitura daukat baina joan zen zapatuan aurreneko aldiz ikusi nuen Bergara kanpoan jokatzeko eta, nire ustez, aurtengo denboraldian nik ikusi diodan partidurik onena egin zuen taldeak Gasteizen. Garaipena merezimendu osoz lortu zuten eta Aurrera Vitoria aurreratu zuzena dela kontuan izanik, are eta garrantzitsua goa zen hiru puntuak eskuratzea.

Bestetan baino erasokorrago aritu zen taldea eta alde handiagoz irabazteko aukera izan zuen. 0 eta 1ekoarekin Josetxok penalti jaurtiketa bat huts egin zuen eta beste hainbat gol aukera izan zituzten bergarrek. Taldeak lan ona egin zuen. Pozik bueltatu ginen Gasteizen ikusitakoarekin eta lortutako emaitzarekin. Orain Tolosa eta Lagun Onak taldeen aurka maila bera erakutsi beharko dute. Lehenbizi, zapatuan, Tolosaren bisita jasoko du Bergarak eta oso partidu garrantzitsua da sailkapenean gora egin ahal izateko.

Otsein Saria

- Sailkapen orokorra:
- Josetxo Lizarralde . 9 puntu
 - Oxel Apraiz 8 puntu
 - Mikel Osoro 6 puntu
 - Asier Rodriguez . . . 6 puntu

Etxeko partiduak bakarrik hartzen dira kontuan.

kronika jubenil mutilen areto futboleko taldea

Lehen itzuli eskasa

BERGARA 1

LASALLE 6

Bergara: Fernando Laskurain, Mikel Bakaikua, Sergio Outeiriño, Mikel Lazpiur, Gorka Iñurrategi -hasierako taldea- Roberto Lozano, Iosu Lete, Aitor Lagoma, Eneko Eguren, Santiago Tardon, Jon Gaztelu eta Gorka Villar.



Argazkian, zapatuan Eibarko Lasalle taldearen aurka galdu zuen talde bergararra.

Bergara Lagunak taldeak goleada jaso zuen zapatuan, Labegaraietan, Eibarko Lasalleren aurka. Emaitza honekin bergararrek amaiera eman zioten ligako lehen itzulerari, eta orain arte behintzat ez dute maila onik erakutsi: jokaturako 13 partiduetatik 10 galdu egin dituzte, bakarria berdindu eta

bi garaipen besterik ez dituzte lortu. Ondorioz, Aitor Zabaletaren mutilak sailkapeneko azken tokietan dugu eta asko hobetu beharko dute bigarren itzuleran.

Zapatuan eibartarrak erraz nagusitu zitzaizkien bergararrei, nahiz eta Zaba-

letaren ustez, markagailuan lortutako aldea gehiegizkoa izan. Lasalle aurreratu zen markagailuan etxeko denfentsaren huts bat aprobetxatuz; baina Bergarak berdinketa lortu zuen handik gutxira, Roberto Lozano jokaldi polit bat sare-

tara errematatzean. Hala ere, Lasallek beste bi gol lortu zituen atsedenaldiaren aurretik eta hortik aurrera bergararrek gauza gutxi egin ahal izan zuten. Partida aurrera ateratzea ia ezinezkoa zen eta bisitariak beste hiru gol egin zituzten bigarren zatian. Bergarako jokalariek, aldiz, ez zituzten aprobetxatu izandako gol aukera garbiak. Eibartarren atezaina bikain aritu zen zapatuan.

Bergarak talde gaztea dauka aurten eta Zabaletak esan digunez, "hemendik pare bat urtera ikusiko da taldearen benetako maila, 16 urteko 6 jokalar baititugu. Aurten jokalarien maila hobetu eta lehen hamarren artean sailkatzearekin konformatzen naiz". Aurreko denboraldian ligan bosgarren postuan sailkatu ondoren, kopako txapelkunak izan ziren Zabaletaren mutilak.

Bergarak bigarren itzulerako lehendabiziko partidua jokatu du zapatu eguerdian, berriz ere etxean Txindokiren aurka. Joaneko partiduan launa berdindu zuten.

GERMAN HERNANDEZ / Auto gidaria

"Pilotatzeko eskola ona da kartinga"

Iaz Euskal Mendiko Txapelketa eskuratu zuen eta, Aritz Ormazabal kopiloto zuelarik, rallyetan ere nagusitu zen junior mailan. Aurten Euskadiko karting txapelketan parte hartzeko asmoa dauka.

G. Pozik iaz lortutakoarekin?

E. Bai. Opel Corsa batekin kompetitu genuen mendi igoeretan eta rallyetan eta, hasieran arazo tekniko asko izan arren, proba guztiak (17 bat) amaitzea lortu genuen. Abiadura-aldagaiak arazo bat baino gehiago eman zigun baina azkenean gure kategorian nagusitzea lortu genuen eta Euskadiko Mendi Txapelketan, 1.400 eta 1.600

bitarteko kategorian sailkapen orokorrean bigarren geratu ginen.

G. Mendi igoerak ala rallyak?

E. Rallyak askoz ere dibertigarriagoak dira eta hobeto moldatu gara. Mendi igoeretarako kotoxe txikia geneukan.

G. Aurten karting txapelketan hartuko duzu parte.

E. Bai. Lehen ere ibilita nago; zaharra saldu eta hobe bat erosi dut. 125 cc.ko kart bat da eta martxo aldera hasiko den Euskadiko Txapelketan hartuko dut parte. Pilotatzeko eskola ona

da kartinga. Ez daukat helburu zehatzik, pilotajea hobetu, besterik ez.

G. Non entrenatzen duzu? Zebateko abiadura hartzen duzu?

E. Olabarriaren eta Bilbo aldean dagoen zirkuituetan entrenatuko dut. Abiadurari dagokionez, hone-lako kartek 170-180 km/h abiadura hartzen dute.

G. Mendi igoeretara eta rallyetara itzuliko zara?

E. Aurten karting txapelketan zentratuko naiz eta datorren urtean, aurrekontu handiagoa izanez gero, bueltatuko nintzateke.



1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Etxea eta lursaila salgai
Olan. 943 76 06 92.

Zubiaurre. 943 76 11 13.

Bidekurutzeta. 250 m²ko
ganbara. 943 76 21 80.

Fraiskozuri. 943 76 54 24.

EROSI

Pisua erosiko nuke Zu-
raderon. 943 76 52 31.

Etxebizitza erosiko nuke
Bergaran. 943 76 09 99.

ERRENTAN HARTZEKO

Bergaran edo inguruan
etxea alokatuko nuke.
Deitu 629 01 56 91
telefonora.

ETXE KONPARTITUAK

Pertsona behar da
etxea konpartitzeko.
943 76 31 23.

2. GARAJEAK

SALDU

Torrekuan garajea
salgai. 943 76 00 93.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen.
Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

Ibargarai. 943 76 44 25.

Antzuola, Kalegoi.
943 76 47 16

Torrekuan.
943 76 28 24/ 39 49 78.

K. Eleizalde. 943 76 36 34.

Bolu. 943 76 19 69.

Garajea salgai edo alo-
kairuan. 943 76 22 22.

ERRENTAN EMATEKO

Soto bat alokairuan
edo salgai Matxiategin.

166 m². 943 76 28 09.

Errentan edo salgai
Ibargarain. 943 76 20 07.

ERRENTAN HARTZEKO

Garajea hartuko genuke.
943 76 23 68 (Maite).

Zubiaurren garajea har-
tuko nuke. 943 76 08 26.

3. LOKALAK

SALDU

Zubiaurren. 100 m².

13,5 milioi. 943 76 11 13.

Lokal bat salgai edo
alokairuan. Bulego
lanerako prestatuta.
58 m². 607 344 658.

EROSI

Lokal komertziala erosi
nahi nuke S. Lorentzon.
300 m². 607 82 53 06.

ERRENTAN EMATEKO

Bolun (100 m²) eta
Arruriagan (18m²)
lokalak. 606 96 23 80.

Mugertzako gainean
35 m²ko lokala alokai-
ruan. 943 76 21 49.

4. LANA

ESKAINTZAK

Administratibo edo
idazkari lanak. Espe-
rientzia. 943 76 35 95.

Haurrak zaindu edota
etxe lanak egingo
nituzke. Esperientzia.
943 76 72 31 (gauzez).

Garbiketa lanak egiteko
neska eskaintzen da.

943 76 45 02 (M. Karmen).

Emakumeak etxeak
garbitu eta edadetuak
zaindu. 943 76 09 33.

Umeak zaindu arratsal-
dez. 943 76 34 48 (Mayra).

Etxe lanak, haurrak
zaindu edo dendari lanak.
943 76 60 56 (Joana).

Neska edozein laneta-
rako gertu. 943 76 00 24.

Emakumea goizez
lan egiteko prest.
607 326 706.

Etxe lanak edo plan-
txa orduta. 943 76 54 82.

Etxeak orduta edo
atariak. 943 76 13 46.

Txoferra lanerako prest,
C eta C-1 gidabaimena
eta garraioetarako
dituena. 943 76 30 34.


Klinika laguntzaileak
gaixoak edo zaharrak
zainduko lituzke.
609 77 01 33 (Asis).

23 urteko mutila lanerako
gertu informatika arlo-
an. 619 15 44 06 (Fran).

Haurrak zaindu edo
dendari lanak egingo
nituzke. 943 76 54 48.

Neska, tabernari lanak

POL-POL
Taberna
☎ 943 76 07 78



Tabernarako
ZERBITZARIAK
behar ditugu
Ez da derrigorrezkoa
esperientzia
943 76 52 30

Tabernarako
ZERBITZARIA
behar dugu
943 76 35 81

INFERNUKUA
TABERNA
Masterreka 23 ☎ 943 76 18 49

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

egiteko gertu.
943 76 71 03.

Etzeko lanak edo haurrak zaindu. 943 76 53 66 (Mari Cruz).

ESKAERAK

Neska behar da: haurrak zaindu eta etzeko lanak. 943 76 04 64.

Emakumea behar da: bi ume zaindu eta etzeko lanak. 943 76 48 76.

Emakumea behar da: umeak zaindu eta etzeko lanak. 943 76 38 06.

Umeak zaintzeko eta etzeko lanetarako neska euskalduna behar da. 943 76 52 79.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAITZAK

Majisteritzan diplomatuak OHOk klaseak ematen ditu. 943 76 57 70.

Ingeles eta frantses klaseak. 943 76 33 26 (Agurtzane).

Kitarra, soinu eta pandero klaseak ematen ditut. 943 76 45 73.

Ingeles filologian

lizentziatuak ingeles klaseak. 943 76 30 28.

LH, DBH eta DBHO. Arazoak dituztenentzat. 656 75 27 39 (Ainara).

ESKAERAK

DBH 4.eko ikasleak ingeles klaseak hartuko lituzke. Irakasle euskalduna behar da. 943 76 55 22 (17:00etatik aurrera).

6. IBILGAILUAK

SALDU

Iveco Pegaso furgoneta-kamioia (SS-AP). Garraiorako txartel nazionalarekin. 943 76 42 01.

Fiat Tipo 16v. (SS-AM). 943 76 06 53.

Puch motorra. 30.000 pezeta. 943 76 29 95.

Opel Astra 1.6 GT. 943 76 00 12 (gauetz).

Kawasaki Vulcan motorra (500 cc.). 21.000 kilometro. 943 77 08 69.

Suzuki motorra egoera onean. 943 76 37 83 (Jose Mari, 10:00-17:00).

Ford Escort familiarra

(SS-AK) egoera onean. Deitu 656 74 49 14 telefonora.

Kawasaki Vulcan motorra (500 cc.). 943 76 27 00/76 67 60.

Volkswagen Golf GTI (SS-AB). 943 76 45 13.

Renault 21 kotxea (SS-Z). 943 76 26 92.

7. ANIMALIAK

SALDU

Boxer arrazako txakurkumeak. 696 05 73 46.

Txahalak salgai izozkailuan sartzeko; labeldunak eta natural hazita. Bildotsak ere bai. 689 541 861.

8. DENETARIK

SALDU

Ekonomika, iturriko zein berogailuko ura berotzeko. 943 76 62 36.

Bizikleta estatikoa. Egoera ona. 943 76 56 51.

Bateria salgai. Merke. 943 76 50 77 (Manu).

Olivetti ET-510 II idazmakina elektronikoa.

10.000 PTA. Berri-berria. 943 76 55 63.

366 MH Pentium ordenadorea. Disko gogorra 2 GB, CD eta teletxararen plaka. 943 76 19 16.

Snowboard bota berriak, 37-38 zkia. 943 76 27 01.

NAD 716 errezeptorea, Dolby Surround eta bi bafle. 943 88 73 13.

Arrue kotxe-aulkia salgai. 943 76 07 60.

Aulkiak eta mahaia. 943 76 46 90.

HARTU

Sukalderako armairua behar dugu. 943 76 11 98.


GALDU

Katu pertsa (emea) desagertu zait. Gorri kolorekoa. 943 76 54 26.

Eskularru marroia galdu dut Fraiskozi inguruan. 943 76 10 44.

AURKITU

Betaurrekoak topatu ditut Pol-Poleko iturrian. Deitu 943 76 28 19 telefonora.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

GOI MAILAKO INJINERUA EDO INJINERU TEKNIKOA
Bilbo. 27600/2

INJINERU TEKNIKOA
Durangaldea. 27900/4

SOLDATZAILE LAGUNTZAILEA
Goierri. 28048/2

HARAKINA
Ibai ezkeraldea. 28050/2

TROKEL ETA TRESNERIEN ARDURADUNA
Debabarrena. 28089/3

MANTENIMENDUAREN ARDURADUNA
Debabarrena. 28091/1

INDUSTRI IBILGAILUEN MEKANIKARIA
Bidaxoa Behea. 28269/6

METALERAKO 3 PEI
Otxandio. 28271/2

KOMERTZIALA
Goierri. 28306/1

KOMERTZIALA
Bilbo. 26214/5

KOORDINATZAILEA
Donostia. 27058/3

SOLDADURA IRAKASLEA
Debagoiena. 27382/5

TRAILER GIDARIA
Irun. 27510/3

ILEAPAINZAILEA
Bilbo. 27873/2


ILEAPAINZAILEA
Ibai eskualdea. 27876/3

SUKALDARI LAGUNTZAILEA
Ibai ezkeraldea. 27879/3

EBALUAZIO TEKNIKARIA
Egailan. 28103/7

TELEKOMUNIKAZIO PRESTAKUNTZA ZIKLORAKO ARDURADUNA
Bilbo. 27951/2

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.
Langai Udaketxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.




EGIZU SAN BALENTIN EGUNERAKO PLANA!

San Juan auzoa, Elgetako bidea, Bergara. Tf. 943 76 35 51.

Zapaturo afariak, zuzeneko musikarekin!
Sasoiko menu bereziak!

Gure aholkua zaturako, otsailak 5:
• Gulak betiko erara
• PLATER BEREZIA:
Bildotsa burduntzian
• Gatzatua
• Kafea
• Urteko ardoa
3.500 PTA bakarrik!



Ur-bide
I T U R G I N T Z A

Zubieta 28, behea
BERGARA
943 76 00 57
630 261 617



ITURRIETA

Sagardotegia

Arraga auzoa
Tel.: 945 44 53 85
ARAMAIO

Tabernarako ZERBITZARIA eta SUKALDELAGUNTZAILEA behar dira
943 76 18 49

Era askotako rock emanaldiak otsailean

Ocean Colour Scene, Pennywise, La Polla eta Lin Ton Taun, besteak beste

Musika egitarau zabala prestatu dute Jam aretoko arduradunek otsailerako. Joan zen astean Cockney rejects punk talde ospetsuak eskainitako emanaldi arrakastatsuen ondoren, kontzertu interesgarriak josita heldu zaigu otsaila.

Asteburu honetan, bi kontzertu izango ditugu. Eguakitzean, Lagartija Nick andaluziarrek eta Ill donostiarrek joko dute. Domeka iluntzean, berriz, beste hiru talde arituko dira: Annihilator, Overkill eta Embrace Me Ocean.

Hurrengo astebururako bi emanaldi iragarri dira. Eguakitzean, otsailak 11, πLT izango ditugu Go-Jamen. Mungiarrek hirugarren eta azken diskoa, "3" izenburukoa, aurkeztuko digute. Bestalde, zapatuan, Ocean Colour Scene britainiarrek izango ditugu. Birmingham hiritik datoz eta Britainia Handiko pop talderik interesgarrienetakoa dugu. Besteak beste, Oasis eta Paul Weller garai bateko Jam taldeko liderrarekin batera jo izan dute hainbat kontzertu-



Pennywise kaliforniarrek otsailaren 26an izango ditugu Jam aretoan.

tan. Benicassim rock jaialdiko iaizko edizioko izarretako bat izan genuen Ocean Colour Scene. Datorren zapatuan "One from the modern" azken diskoa aurkeztuko dute Bergaran. Eurekin batera Fila India izango dira.

Otsailaren 19rako, La Polla eta Non Demontren emanaldia iragarri da. Hurrengo egunean, Go-Jamen, antzerkiaren txanda izango da. Mua antzerki taldeak "Thelma eta Louise" eskainiko du.

Hilaren 25ean, berriz, Lin Ton Taun zestoarrak eta Kafka izango ditugu, eta 26an, Pennywise estatubatuarrek. Kaliforniarrek azken Warped biran nabarmendu dira eta punk-rock doinuak deskargatzera etorriko zaizkigu Amillagara. "Straight Ahead" azken lana aurkeztuko dute. Biharamonean, Go-Jamen, kitarra eta bibolin kontzertu batekin gozatzeko aukera izango da, David Duran eta Maribelen eskutik.




Altunak luzemetrai baterako gidoia prestatzeari ekingo dio buru belarri.

Asier Altunaren "40 ezetz" Euskal Herrian eta kanpoan ikusiko da

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, bigarren urtez jarri du martxan Kimuak proiektua, euskal zinemagileen laburmetraiak promozionatzeko helburuarekin. Promozio honetarako hautatutakoetako bat, Asier Altuna bergararrak Telmo Es-

nalekin batera eginiko "40 ezetz!" dugu. Beraz, bergararraren filme hau, Euskal Herrikan kanpoko jaialdi eta zinema topaketetara eramango da, eta Euskal Herrian bertan ere, zirkuito bat antolatu da, laburmetraia hauek ezagutzera emateko.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

KONDE



Burdinate 1
☎ 943 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

Ekitaldi ugari San Antonioko Gure Ametsa elkarte

Gure Ametsa elkarte hainbat ekitaldi antolatzen ari da azkenaldi honetan. Urtarrilaren 24an hasi eta hilaren 5era arte, arratsaldeko 7etatik 9etara, Jagoba Manterola eta Nikolas Ardanaz erronkariak eta zaraitzuarren transhumanziari buruzko argazkiak daude ikusgai Gure Ametsan. Erakusketak honi amaiera emateko, bihar, zapatua, goizeko 11:30etan, gai berberari buruzko hitzaldia eskainiko dute Jose Etxegoien historialariak eta Jesus Ordunak, "Napar bideak" elkarte lehendakariak.

Otsailaren 24an, berriz, Diego Sotelo, Argiñanoren jatorriko sumillerrak, ardo-dastatze ikastaro bat eskainiko du. Elkarte esan digutenez, aurrera-



Zapatuan itxiko da transhumanziari buruzko erakusketak.

go jakinaraziko dute non eta noiz eman dezaketen izena parte hartu nahi duten guztiak.

Azkenik, esan dezagun, Luis Irizar sukaldari ezagunaren hitzaldia dagoela iragarrita Gure Ametsa elkarte martxo amaierarako, baina ez dago oraindik data zehatzik.

Urte berriarekin irratsaio berriak aurkeztu ditu Txapa Irratiak

Txapa Irratiak, urte berriarekin batera, bere programazioa berritu nahi izan du, eta irratsaio berriak gehitu dizkio lehengoari. Horrela, eguaztenetan, arratsaldeko 5etatik 6etara, "Milurtea badator" irratsaio berria entzuteko aukera izango dugu. Hurrengo 3 orduak, berriz, musikari eskainiko dizkiote, eta baita zapatuko 12etatik 4etarako tartea ere. Eguenetako programazioan ere

egin dute berrikuntzarik, eta iluntzeko 8etan "Pikulitxako kronikak" magazine berria emititzen hasiak dira. Azkenik esan, otsailean zehar, azkenaldian Bergaran izan diren musika talde ezberdinei eginiko elkarrizketak entzuteko aukera eskainiko digutela Txapa Irratian, besteak beste, Sin City Six, Akauzaste, Basque Country, Lorelei, Asgarth eta Kafha taldeei eginikoak.

erreseinak



Iñaki Mendiguren
Iluneko xuxurlak
Eleberria

Bere bigarren eleberria du honako hau Iñaki Mendiguren idazle eta itzultzaile ezkiotarrak, eta eleberri honekin irabazi zuen hain zuzen ere "1999ko Irun Hiria Literatur Saria". Bertan, zeharo ezberdinak diren aita-alaba batzuen harremana kontatzen da, eta horretarako batak besteari idazten dizkioten eskutitzetaz baliatzen da idazlea. Bi belaunaldi eta mentalitate ezberdin isladatzen ditu idazleak, aita kontserbadore eta alaba bihurri, heterodoxo eta bizizale baten eskutik.

-Kutxa Fundazioa. 139 orri. 800 PTA.



Betagarri
80/00
Bilduma/Bertsioak

Diska ezberdin batekin datorkigu oraingoan Betagarri taldea. Azken 20 urteetako euskal musikaren errepaso egin nahi izan du talde gasteiztarrek disko honekin, euskal musikarentzat oparoa izan den garaia. Bertan, euskal musikan historia egin duten eta erreferente garrantzitsua utzi duten 20 abeslari eta talderen 20 abesti bildu dituzte, hori bai, beti ere beraien ska ukitu propioa emanaz. Besteak beste, Baldin Bada, Hertzainak, Itoiz, Kortatu, Doctor Deseo, Ruper Ordorika eta Negu Gorriak bezalako taldeen abestien bertsioak aurkitzen ditugu.

-Esan Ozenki. 2.200 PTA.

ileapaindegia

eder gela

— disdira —

Masterreka 7 • Tf. 943 76 00 55

ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA



Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA

denborapasa

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

LUMA

Ezker eskuma

1. Maisuari dagokion trebetasun. 2. Santutegi batera erro-merian doana. Lehenengoa. 3. Naukate. Tona. Kontsonante errepikatua. 4. Hareazko meta. Garai. 5. Idi, hitz elkarketan. Nire. Bokala. 6. Zelatan ibiltzen dena. 7. Areagotzeko partikula. Azkenekoa. Itxura. 8. Polit. Barazki mota. 9. Bizkaiko herria. Röntgen. Uharteak. 10. Erail. Ortze.


Goitik behera

1. Mendigoizaleak. 2. Araudiak. 3. Gipuzkozko hiria. Infin., lortu. Bokala. 4. Apaizen jantzia. Argi, hitz elkarketan. 5. Haur. Bi egun barru. Uranioa. 6. Infusio mota. Garra. Naizen hau. 7. Asto arra. Arazo hitzaren kontsonanteak. 8. Euskal atzizki femeninoa. Ikur. 9. Bokala. Holmioa. Iparraldean, esna. 10. Gura. Zorro haundi.

Soluzioa

10. Nahia. Zaku
9. U. Ho. Atzar
7. Astarra. Fz. 8. Sa. Semale
5. Ume. Ezt. U. 6. Ta. Sua. Ni.
3. Iun. Lor. A. 4. Sorana. Art.
1. Mendizalea. 2. Arautegiak
Goitik behera
Ea. R. Iriak. 10. Akatu. Zeru.
Ago. Z. Antz. 8. Iriain. Aza. 9
5. It. Neure. A. 6. Zelatarra. 7
3. Naute. 1. Hn. 4. Duna. Sasoi.
1. Maisurasun. 2. Erromesa. A.
Ezker eskuma

bonofotoa



Miguel Angel Elkorobereibar




Zein lekutan daude bi iturri hauek?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!

- Datozen egunotan antolatuko da Zuhaitz Astea Bergaran. Noiz?
A- Otsailaren 12tik 19ra bitartean
B- Otsailaren azken astean
C- Otsailaren 20tik 27ra bitartean
- Zein da Udal Artxibategian gordetzen den dokumenturik zaharrena?
A- Uzarragako Hiribildu Agiria
B- Bergarako Hiribildu Agiria
C- Moisesen taula euskaratuak
- Otsailaren 12an pop talde britainiar ospetsu bat izango da Jam aretoan. Zein?
A- Ocean Rain
B- Pannywise
C- Ocean Colour Scene



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Felisa Gabilondo**rentzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Felisari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Paduako San Antonio** Galde Debalde: **1-B, 2-B, 3-C**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____ Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

SOS arrosa
kiloko poltsa
159 PTA!
Super BMen beti eskaintzarik onenak!

Ehun urtetik gorako Mujika jantzidendako saltzaillia dogu Trini. Orain dala 32 urte hasi zan lanian plazako denda honetan. Antzuolan jaixotakua, 13 urtekin etorri zan Bergarara bizitzera. Ezkonduta dago eta alaba bat dauka.

Trini Olabarria

Gustatzen jatzu plazan lan egittia?

Bai, leku polita da eta zentruan dago.

Toki onian dago dendia, ezta?

Lehen hobeto: azokia bertan egitten zan.

Zer saltzen dozue?

Gizakumien erropia.

Zer da gehixen saltzen dana?

Alkondarak eta prakak.

Ondo konpontzen zara bezeruekin?

Oso ondo.

Aurten, zer eruaten da?

Pañozko erropia, trenkak eta holakuak.

Koloria?

Betikuak: grisa, marroixka, berdexka...

Zein edadetako bezeruak dittuzue?

Tarteko edadekuak.

Jazteko aholkuak ematen dittuzu?

Hortara etortzen die denda txikixetara.

Gehixago saltzeko, gezur txikixak esaten dittuzu?

Behin esango dozu bakarrik.

Zeñiek erosten dau: emakumiak ala gizonak?

Dudaik barik, emakumiak.

Gustu onekuak die?

Bai, badakite konbinatzen.

Zeñiek erosten dau zure senarraren erropia?

Neuk.

Zela jazten die Bergarako gizonak?

Ondo, normalmente andrak jazten dittue.

Modia asko aldatu da?

Aldaketa asko ez dau eukitzen.

Zer ez jatzu gustatzen modatik?

Tejido oso akrilikuak. Ez die gorputzian hain ondo asentatzen.

Ze gustatzen jatzu gehixen dendako lanetik?

Jendiakin tratua.

Bestela, nun egingo ziñuke lan?

Jendiaren aurrian egoten dan tokixan.

Jaiegunetan, zer egiten dozu?

Mendira jun, lagunekin urten.

Mendira, nora?

Urbixara eta holako tokixetara. Udan Pirineo aldera.

Afiziñorik?

Musikia entzutia, irakurtzia eta inglesa.

Musika talde bat?

Alabiak entzuten dabena: Aerosmith, Metallica. Sabina be bai.

Azkenengo kontziertua?

Arrasateko Orfeoiarena eta San Petesburgoko orkestiarena. Hemengo Orfeoi eta bandakuak be bai.

Irakurri dozun azken liburua?

Stephen King-en "Misery".

Bergara ala Antzuola?

Bixak gustatzen jata.

Bi herrixetako toki bat.

Antzuolan, plazia. Bergaran, plazatik jun eta San Pedro elizako eskillarak.



ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

IRURAK PINTURAK O.E.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32

Dixula

BOKATAK DAUZKAGU

Barrenkalea 32
Tf. 943 76 44 95

URRATS TABERNA

KOKTEL BEREZIAK GAUETAN

Ibargarai 4
943 76 52 92

Afariak ematen ditugu



Artekalea 14. Tf. 943 76 20 42

IKUSBI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irala 5 ☎ 943 76 53 09



Asentzio egunean Zubiaurren

Ekainaren 1ean, Asentzio egunean, ateratako argazkia da goikoa. Orain dela 37 urte ingurukoa da eta bertan Zubiaurreko lagun koadrila agertzen da. Lehen Asentzio egunean jaiak antolatzen ziren Zubiaurren eta, esan digutenez, giro aparta izaten zen auzokideen artean. Ekitaldi ezberdinak antolatzen ziren eta auzotar gehienek hartzen zuten parte.

Aste honetako erretratuan, esan bezala, Zubiaurreko emakume koadrila bat ikus dezakezue. Nabaria da uda partean ateratako argazkia dela guztiak manga motzetan ageri zaizkigulako, dotore jantzita gainera. Jendeak asko zaintzen zuen bere janzkera jaiegunetan garai har-

tan, eta soinekoak edo trajeak estreinatzeko egunak izaten ziren. Koadrila taberna baten aurrean ageri zaigu eta edariekin batera, trofeo bat ere ikus daiteke mahai gainean. Ez dakigu nork eta zein txapelketa motatan irabazitakoa den, baina harro-harro erakutsiko zieten bere auzolagunei. Hara hor zeintzuk diren argazki-koak, ezkerretik eskumara:

Edurne Azpiazu, Lolita Miner, Maribel Altuna, Mertxe Alberdi, Maria Jesus Aperribai, Carolina Aranzabal, Arantxa Garmendia eta Mari Karmen Leturia.

Argazkia: Mari Karmen Garmendia

ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde Jauregian gaituzu, zatoz!

**BEHEKO
TABERNA**

Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tf.: 943 76 55 74



umelaga

JATETXEA

54 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

ARANZADI IKASTOLA

matrikulazio

Otsailaren 7tik 18ra arte Goizez: 8:30-13:00 Arratsaldez: 15:00-18:00

epea zabalik



eza gut

Haur hezkuntzako gelak
ikusi ahal izango dituzue!

Otsailaren 5ean San Martin plazan eta Poligonoan 16:30-18:30

gaitzazu!



GRUPO

RKUZ

1950-2000




Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA



Mitarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA



50 urte

gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzagatik